

**Txostena, Garapen Jasangarrirako  
Helburuen eta 2030 Agendaren  
erronken alorreko Madrilgo  
Unibertsitate Konplutentsearentzako  
Unibertsitate Behatokiarena**



Txostena, Garapen Jasangarrirako Helburuen eta 2030 Agendaren erronken alorreko Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearentzako Unibertsitate Behatokiarena.

2024ko abendua.

<https://observatorioucm2030.es/>

Proiektu honek Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioaren dirulaguntza jaso du, Espainian Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda sustatzeko eta ezartzeko jarduerak egiteko 2023ko dirulaguntza-deialdian.

|                                                                                               |           |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>0. Sarrera</b>                                                                             | <b>5</b>  |
| <b>1. 2030 Agenda ebaluatzeko tresna. Adierazle-sistema</b>                                   | <b>7</b>  |
| <b>A. JUSTIFIKAZIOA</b>                                                                       | <b>7</b>  |
| <b>B. METODOAK</b>                                                                            | <b>9</b>  |
| B.1. Adierazle-sistemaren metodologia aukeratzea                                              | 9         |
| B.2. Adierazleak aukeratzeko prozesua                                                         | 10        |
| <b>B.3. Adierazle konposatuaren garapen metodologikoa</b>                                     | <b>13</b> |
| <b>B.4. Datuak biltzeko metodoak</b>                                                          | <b>14</b> |
| B.4.1. Unibertsitateko iturri publikoetako informazioa eta datuak biltzea                     | 15        |
| B.4.2. Trantsizio ekosozialari buruzko imajinarioen azterketa kualitatiboa                    | 15        |
| B.4.3. Politiken koherentzia-azterketa                                                        | 16        |
| B.4.4. Datuak zuzeneko behaketaren bidez sortzea                                              | 18        |
| B.4.5. Ikaslearen Behatokiaren inkesta                                                        | 19        |
| <b>C. EMAITZAK</b>                                                                            | <b>20</b> |
| C.1. Neurtu beharreko gaien zerrenda                                                          | 20        |
| C.2. Adierazle konposatua                                                                     | 20        |
| C.3. Helburuen progresibitatea 2030era begira                                                 | 21        |
| <b>2. Bidezko oparotasunerako trantsizio ekosoziala egiteko beharrezko imajinario berriak</b> | <b>26</b> |
| <b>2.1. Unibertsitate-komunitatearen egungo imajinarioen azterketa kualitatiboa</b>           | <b>26</b> |
| 2.1.1. Ideia orokorrak                                                                        | 27        |
| 2.1.2. Gaikako ideiak                                                                         | 29        |
| <b>2.2 Unibertsitatearen eta zientziaren zeregina trantsizio ekosozialetan</b>                | <b>33</b> |
| <b>2.3. Unibertsitatearen zeregin soziala trantsizio ekosozialetan</b>                        | <b>37</b> |

|                                      |           |
|--------------------------------------|-----------|
| <b>3. Etorkizunerako konpromisoa</b> | <b>39</b> |
| <b>ESKERRAK EMATEA</b>               | <b>41</b> |
| <b>ERREFERENTZIAK</b>                | <b>41</b> |
| <b>ERANSKINA</b>                     | <b>43</b> |

## 0. Sarrera

Unibertsitatea zientzia- eta hezkuntza-erakunde bat da, hurbilketa holistiko eta kritiko batetik abiatuta konplexutasunari eta ziurgabetasunari aurre egiteko prestatua. Hain zuzen, bi alderdi horiek funtsezkoak dira XXI. mendean gure mundua ulertzeko. Horregatik, unibertsitatea ingurune egokia da hainbat arazori heltzeko eta tradizionalki eta, batzuetan, artifizialki bereizita pentsatu izan diren eremuak elkarrengana hurbiltzeko. Eremu humanistiko, sozial eta naturalek, hainbat diziplinatan banatuta egon arren, leku partekatua dute unibertsitatean. Unibertsitateak errealitateaz egiten duen interpretazioak, analisiak, itzulpenak, kontserbazioak edo ebokazioak lehentasunezko posizioan kokatzen du, gizarteari eraldatzen laguntzeko.

Polikrisi sistematikoen eta trantsizio ekosozialen egungo testuinguruan, unibertsitatearen gaitasun eraldatzaile horrek erantzukizun handiak dakartza. Gainera, kontuan hartu behar da 2030 Agendaren agertokiak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) ikuspegiak dagoeneko abian den gizarte- eta politika-eztabaidarako eremu irekia osatzen dutela. Horri esker, erabat ekologikoak diren unibertsitateak edukitzea «utopia lorgarri bat» da (Barnett, 2018), baina baita premia bat ere.

Erantzukizun horiei erantzuteko beharretik jaio zen, hain zuzen ere, *Garapen Jasangarrirako Helburuen eta 2030 Agendaren erronken alorreko Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearentzako Unibertsitate Behatokia* (UCM 2030 Behatokia). Berrikuntza sozial eta instituzionalerako tresna bat da Behatokia, eztabaida zientifiko-akademikoetan eta zibiko-sozialetan 2030 Agendaren hurbilketa kritiko eta eraldatzailea sustatzea xede duena.

Proiektuaren izaera diziplinartekoa da, nahitaez, eta honako hauen laguntza du: UCMko zazpi fakultatetako (Zientzia Politikoen eta Soziologiaren Fakultateko, Biologia Fakultateko, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko, Informazio Zientzien Fakultateko, Kimika Zientzien Fakultateko eta Albaitaritza Fakultateko) irakasle eta ikertzaileena (IRIena), ikasleena eta UCMko teknikariena eta kudeaketako, administrazio eta zerbitzuetako langileena (TEKAZELena), bai eta unibertsitate barruko zein kanpoko beste eragile sozial eta instituzional batzuen ere (ikerketa-gune, unibertsitate-komunitate, erakunde publiko eta gizarte-mugimenduen).

Behatokiak eskubideen unibertsaltasunaren ikuspegia jasotzen du, bai eta erantzukizun globalaren eta tokiko erantzukizun partekatu bezain bereiziaren ikuspegia ere. Gainera, unibertsitate publikoaren lidergo sozialaren eginkizuna bere gain hartzen du, lehenik eta behin, erronka ekosozialen aurrean nola erantzuten duen ebaluatzeko eta, bigarrenik, arlo horretan bere jarduera hobetzen eta eraginkorragoa izaten laguntzeko. Hala, Behatokiaren helburuetako bat da adierazle ekosozialen sistema integral bat eratzea, parte-hartzean oinarrituz, 2030 Agendaren esparruan unibertsitate-jardueraren jarraipen kritikoa egin ahal izateko eta, horrela, GJHak Espainiako unibertsitate publikoen errealitatera hurbiltzeko.

Erronka eta trantsizio ekosozialei dagokienez, unibertsitatearen jardueraren ebaluazioa campusetik irakaskuntza- eta ikerketa-eremura hedatzen da, eta unibertsitatez kanpoko proiektzio-eremuraino heltzen. Ebaluazio horrek indartu egin dezake egungo eta etorkizuneko arazoei irtenbideak bilatzeko lidergo partekatua, funtsezko eremu batean: zientzia- eta ikerkuntza-garapenaren eta herritarrentzako hezkuntzaren eremuan, hain zuzen. Ildo horretan, unibertsitate publikoak egungo larrialdi planetarioaren testuinguruan duen zeregin arduratsuaren barruan sartzen dira ezagutzaren eta jakintzaren transferentzia eta gizarteari mezuak helaraztea. Unibertsitate publikoak, diru publikoarekin —denon diruarekin— finantzatzeko ezagutzen eta esperientzien trukea den aldetik, gizarte-topaketarako eremu zibikoa ere izan behar du, bai eta komunitate-loturak sendotzeko gai ere.

Txosten honetan, proiektuaren esparruan diseinatzeko adierazle-sistemaren proposamena aurkeztzen da, baita orain arte lortutako atariko emaitzak ere. Adierazle-sistema eraikitzea Behatokiaren lan egiteko moduaren isla da, eta, horregatik, GJHei lotutako gaikako bost lantaldean antolatutako ikertzaile-taldearen elkarlanaren parte ere bada.

Lantalde horiek 2030 Agenda unibertsitatearen testuinguruan nola zehazten den hausnartu dute, hainbat alderdi kontuan hartuta, hala nola irakaskuntza eta ikerketa, campusek osatzen dituzten ekosistemak eta gobernantza, bai eta unibertsitateak gizartean duen proiektzio instituzionala ere.

Hain zuzen ere, proiektzioaren eremu horretan ireki nahi du Behatokiak esku hartzeko eta eraldatzeko esparru bat, unibertsitatearen testuinguruaz haratago joango dena, erronka ekosozialek dakartzaten gai handiei buruz diziplinarteko gogoeta egiteko. Mende honetako erronka itzelen aurrean, imajinario berriak sortzen lagundu nahi du Behatokiak, eta

unibertsitatearen zeregina aitortu, krisi ekosozialaren diagnostikoan sakontzen eta emantzipatzeko aukerak planteatzen lagun dezaketen jakintza eta narratibak sortzeko gaitasuna duen eragilea den aldetik.

# 1. 2030 Agenda ebaluatzeko tresna.

## Adierazle-sistema

### A. JUSTIFIKAZIOA

Nazio Batuek argi eta garbi nabarmendu dute unibertsitateak 2030 Agendan definitutako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) sustatzeko eta ezartzeko duen zeregina. Izan ere, trantsizio ekosozialerako funtsezko eragilea da unibertsitatea, ezaugarri hauek direla eta: hezkuntza eta ikerketa, berritzeko gaitasuna, gizarte-lidergoa eta sektoreen arteko aliantzak egiteko posizio pribilegiatua. Hori horrela, aurretiko diagnostikoa egin eta GJHak txertatzeko eskatu diote Nazio Batuek unibertsitateari (SDSN, 2017: 2-3).

Bestalde, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Biltzarrak (CRUEk) adierazi duenez, «unibertsitateek taldean hausnartu behar dute GJHei dituzten inplikazioei buruz, eta gai izan behar dute guztien artean erabakitzeko unibertsitate-sisteman zer aldaketa egin behar diren 2030 Agenda txertatu ahal izateko» (Gómez eta Solana, 2016: 4; ikusi, halaber: CRUE, 2021).


Unibertsitateak gizartea eraldatzeko duen gaitasunak erantzukizun handia dakar berekin une historiko honetan. GJHak esparru soziopolitiko saihestezina bihurtu dira erakundearen etorkizuna gidatzeko orduan (Alcaraz eta Alonso, 2019: 34-35). Gaur egun, unibertsitate erabat ekosozialak edukitzea «utopia egingarria» da, eta, hori lortzeko, ekimen zehatzak eta baliabideak behar dira (Barnett, 2018).

Hori horrela, beharrezkoa da, aurrena, adierazle batzuk izatea, non gauden eta nola egiten dugun aurrera erakusteko. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea (UCM) Espainiako unibertsitatetik handiena da, irakaskuntza presentzialean. Halere, nahiz eta aurrerapenak egin diren, oraindik ez ditu neurketa-tresna baliotsu horiek, zeinak, egia esan, duela gutxi agertu baitira (EHU, 2020).

Horregatik guztiagatik, 2030 Agendako GJHak UCMn nola aplikatzen diren jarraipena egiteko unibertsitate-behatoki bat sortu eta garatzeko proiektu baten barruan, lan

kontzeptual eta teoriko bati ekin zitzaion, ondoren adierazle-sistema propio bat sortzeko, gai horren inguruko eztabaida beste ikuspegi batetik begiratze aldera.

Illo horretan, ikerketa-taldeak lan-plan bat prestatu zuen —horren eskema hurrengo irudian ageri da—.



1. irudia: prozesuaren eskema. Iturria: norberak egina.

Lehenengo urratsa aukera metodologikoak aztertzea izan zen, 2030 Agendaren aplikazioan unibertsitatearen jardura neurtzeko metodori egokiena definitzeko, egokitzapen teorikoa, adierazgarritasun estatistikoa eta datuen eskuragarritasuna uztartuz.

Ondoren, adierazle-kategoriak definitu eta haztatu ziren, eta normalizazioari lotutako estandarrak finkatu.

Aldi berean, UCMko 30 ikertzailek baino gehiagok osatutako lantaldeak antolatu ziren, diziplinarteko lan eta elkarrikeria aberats bat abian jartzeko. Helburua zen 2030 Agendaren irakurketa kritiko batetik sortutako termino nagusietako batzuen kontzeptuak argitzea, sakon aztertuz unibertsitatean nola aplikatu diren eta Estatuko eta nazioarteko beste unibertsitate batzuetan izandako esperientziak. Azkenik, talde bakoitzean ezarritako helburuak neurtzeko gai izango ziren ikuspegiak eta adierazleak proposatu ziren.

Ondoren, abian jarri zen datuak biltzeko eta antolatzeko metodoak zehatz-mehatz definitzeko lana, bai eta datuak biltzeko ere. Aurrerago, bilketa-prozesuetatik ateratako datuak prozesatu eta agregatu ziren, definitutako adierazle-sistemaren formatuaren arabera.

Azkenik, jasotako datuak agregatu ondoren, adierazle-sisteman oinarritutako ebaluazioaren emaitzak lortu ziren.

## B. METODOAK

Metodologia-esparruak Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiaren (CSICen) liburu zuri berriak hartzen ditu erreferentziazat; zehazki, lehen liburua, non gizarte global jasangarri baterako oinarri berriak sustatzeko erronka handiak aurkezten diren ikerketa-programetan, 2030. urteari begira.

Diziplinarteko lankidetzan aurrera egiteko beharrak eta bizitzaren jasangarritasunerako aurreikuspenek baldintzatutako esparrua da, eta prozesu horietan gizarte-zientziek bitartekari-rol aktiboa jokatu behar dute. Zehazki, lehen liburuko *A erronkan* dago orientabide nagusia. Zientziaren, berrikuntzaren eta ezagutzaren arteko harremanak ditu ardatz, garapen-eredu jasangarriei begira.

Ikertzaile-taldeak Unibertsitate Konplutentseko zazpi fakultatetako profesionalak dituenek, taldeak bere egin du lehenengo erronka metodologikoa: «jasangarritasun sozioekologikoa helburu duen eraldaketara bideratutako ikerketa-esparruak garatzea» (Cañibano eta Pavone, 2022).

### B.1. Adierazle-sistemaren metodologia aukeratzea

2030 Agendaren aplikazioan unibertsitatearen jardura neurtzeko aukera metodologikoak aztertu ondoren, adierazle konposatua sortzea aukeratu zen, metodologia hori egokitzen baita ongien egokitzapen teorikoa, adierazgarritasun estatistikoa eta askotariko datuen eskuragarritasuna uztartzeko helburura.

Adierazle konposatuak hainbat adierazle konbinatzen ditu, fenomeno multidimentsional jakin baten egoera eta bilakaera deskribatzeko. Adierazle konposatuak ohikoak dira gizarte-zientzien munduan. Hainbat adibide daude, baina agian ezagunena barne-produktu

gordina (BPGd-a) da, zeina prezio erlatiboen arabera konbinatutako jarduera ekonomikoen adierazle konposatua baita.

Gure adierazle-sistemaren ondoriozko adierazle konposatua sortzeko erabilitako oinarritzko dokumentuan —*Handbook on Constructing Composite Indicators* (ELGA eta JRC, 2008)— azaltzen denez, horrelako metodologiek alderdi positibo hauek dituzte:

- Fenomeno ekonomiko konplexuak erraz laburbiltzeko aukera ematen dute.
- Informazio asko azkar interpretatzeko aukera ematen dute.
- Eragileak erraz konparatzeko aukera ematen dute.
- Informazioa ematen dute, datu asko sartu gabe.

## B.2. Adierazleak aukeratzeko prozesua

Adierazle konposatuaren sistemaren parte izango ziren adierazleak aukeratzeko, lehenik eta behin, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko fakultateetako 30 ikertzailek osatutako taldeak bost taldetan banatu zituen GJHak, sektoreen edo gaien arteko kidetasun- eta lotura-irizpideei jarraituz.

Talde horiei Gaikako Lantaldeak (GLak) deitu zitzairen, eta hurrengo irudian ikus daitekeen moduan antolatu ziren.




## 2. irudia. Gaikako Lantaldeen (GLen) osaera. Iturria: norberak egina.

Ikertzaileen azterketa erraztea zen esperientzia profesionalari eta elkarri lotutako gai batzuk ardatz hartuta GJHak multzokatzearen helburua. GL horiek garaturiko lanen zeharkakotasuna eta barne-koherentzia errazteko, etengabeko koordinazio-lana egin zuten Behatokiaren bulego teknikoko langileek bereziki. Bulegoko kideak ere bost GLen artean banatu ziren, horien eguneroko jardueran parte hartzeko eta zereginetan laguntzeko.

GLak GJHen berrikuspen kritikoko prozesu sakon batetik abiatu ziren, eta oinarri teoriko eta kontzeptualeko dokumentuak egin zituzten, gogoeta egiteko, 2030 Agendari buruz eta krisi ekosozialaren erdian unibertsitateetan izan duen ezarpenari buruz. Hainbat bilera egin ziren, bai eta proiektutik kanpoko pertsona nabarmenen laguntza jasotzeko ekitaldiak ere, zeregin hori guztia betetzeko. Talde bakoitzak oinarrizko dokumentua egiten zuen bitartean

—dokumentu horien laburpena proiektuaren emaitzetako bat izango den liburu kolektiboan sartuko da—, GLEk hainbat adierazle definitu zituzten, beharrezkotzat jo zituztenak unibertsitateak 2030 Agendaren aplikazioan izandako jarduerak egiaztatzeko.

Zeregin horretarako, unibertsitatearen jarduerak aztertzeko hiru maila zehaztu ziren: i) Campusa, ii) Irakaskuntza eta ikerketa, iii) Diskurtso eta praktika instituzionalak. Hurrengo irudian ikusten denez, unibertsitate-jardueraren azterketa-maila horietako bakoitzak beste hainbat eremu biltzen ditu.



### 3. irudia: azterketa-mailak. Iturria: norberak egina.

Lehenengo azterketa-mailak, *Campusak*, unibertsitate-jarduerak garatzen den esparruarekin eta azpiegiturekin zerikusia duen guztia hartzen du, bai eta horren kudeaketa ere. Bigarren azterketa-mailan, *Irakaskuntza eta ikerketa* izenekoan, unibertsitate-bizitzako jarduerak nagusiaren edukiak daude. Hirugarren azterketa-mailan, *Diskurtso eta praktika instituzionalak* izenekoan, unibertsitatearen gizarteari lotutako jarduerak sartzen dira, bai diskurtso eta irudikapen sinboliko ofizialen bidezko komunikazio formalak (aukeratutako aliantzak barne), bai praktika instituzionalak (plan estrategikoak, genero-berdintasuneko politikak edo jasangarritasuneko politikak barne, besteak beste).

Horrela, adierazleak aukeratzeko, alde aurreko azterketa teoriko handia egin zen, krisi ekosozialari aurre egiteko moduari buruzko azterketa politikoa oinarritzat hartuta, eta azterketa horretatik irizpide estatistiko batzuk atera genituen, aurreko hurbilketei baliozko irudikapena eskaintzeko modukoak, alegia. Gauzak horrela, adierazle horiek:

- Hurbilketa teoriko batetik abiatzen dira.

- Azterketa politiko (edo politiko-zientifiko) bati erantzuten diote.
- Irizpide estatistikoei erantzuten diete.

GLEk hausnarketa teorikoan eta adierazleen hasierako definizioan lan autonomoa egin ondoren, 30 ikertzaileko taldeak lan bateratua egin zuen, helburu hauekin: GLEn adierazleen arteko intersekzioei irtenbideak ematea, normalizazio-prozesuaren estandarrak finkatzea, datuen haztapenei eta agregazioari buruzko erabakiak hartzea eta dokumentuaren hasierako eskeman ageri diren gainerako estatistika-lanak egitea.

Fase horretan, hasiera-hasieratik datuak eskuratzea nahitaezkoa zuten adierazleak ere definitu ziren. Horretarako, sistema osoko 25 adierazle aukeratu ziren, baldintza hauek betetzen zituztenak: 2030 Agendako gaien artean berdinbanatuta egotea, unibertsitatearen jardura neurtzeko oso garrantzitsuak izatea eta horiei buruzko datu publikorik ez egotea.

### B.3. Adierazle konposatuaren garapen metodologikoa

Adierazleak definitu ondoren, metodologia garatu zen, adierazle konposatuei buruzko gidaren arabera (ELGA eta JRC, 2008), eta adierazleen normalizazioa izan zen aurreneko zeregina.

Normalizazio-prozesuaren helburua da adierazleen osagai guztietarako neurri-unitate bakarra sortzea, osagai bakoitzaren neurri-unitateen aniztasunetik abiatuta. Haztapenak, bestalde, adierazleen pisu erlatiboa zehazteko tresna nagusia dira. Haztapenek murriztapen hau bete behar dute:

$$\alpha + \dots + \beta + \alpha' + \dots + \beta' + \alpha'' + \dots + \beta'' = 1$$

Non « $\alpha + \dots + \beta$ » azterketa-maila jakin bateko adierazleen haztapen guztien batura den, « $\alpha' + \dots + \beta'$ » beste azterketa-maila jakin bateko adierazleen haztapen guztien batura den eta « $\alpha'' + \dots + \beta''$ » hirugarren azterketa-maila jakin bateko adierazleen haztapen guztien batura den.

Era berean, ikerketa-taldearen hausnarketa- eta deliberazio-prozesuaren emaitza gisa, eta unibertsitate-errealitatearen irudikapen fidela lortzeko, hiru azterketa-mailen arteko

haztapienak ekitatibotzat jo ziren, eta, beraz, horietako bakoitza azken emaitzaren heren bat da.

Normalizazio-metodoa eta haztapienak zehaztu ondoren, agregatzeari ekin zitzaion, formula honen arabera:

$$\text{Kalifikazioa} = \sum \text{AH1N} * \alpha + \dots + \text{AV2N} * \beta + \sum \text{SL1N} * \alpha' + \dots + \text{SR2N} * \beta' + \\ \sum \text{GG1N} * \alpha'' + \dots + \text{GT3N} * \beta''$$

Non «AH1N + ... + AV2N», «SL1N + ... + SR2N» eta «GG1N + ... + GT3N» adierazle guztien batura diren. Adierazle konposatuaren azterketa-mailen arabera bilakaera erakusteko, formula hauek aplikatzen zaizkie kalifikazio desagregatuei:

$$\text{A kalifikazioa} = \sum (\text{AH1N} * \alpha + \dots + \text{AV2N} * \beta)$$

$$\text{B kalifikazioa} = \sum (\text{SL1N} * \alpha' + \dots + \text{SR2N} * \beta')$$

$$\text{C kalifikazioa} = \sum (\text{GG1N} * \alpha'' + \dots + \text{GT3N} * \beta'')$$

Azpimarratu beharra dago erabilitako adierazle batzuek eragin negatiboa izan dezaketela unibertsitateak 2030 Agenda egoki aplikatzeko jardueran, eta, beraz, adierazle horiei balio negatiboa esleitu zitzaion agregazio-prozesuan.

Era berean, ikertzaile-taldearen hausnarketa- eta deliberazio-prozesutik haxe ondorioztatu zen: beharrezkoa zela batezbestekoa baino garrantzitsuagotzat harturiko adierazleak beste modu batera haztatzea (hau da, horiei balio handiagoa ematea). Neurri hori hein handiagoan hartu zen 2030 Agenda unibertsitateari aplikatzearen emaitzan eragin negatiboa izan zuten adierazleetarako.

Agregazioa egin ostean, kalifikazioak aplikatu ziren.

## B.4. Datuak biltzeko metodoak

Adierazle konposatua sortzen duen adierazle-sistema elikatzeko datuek jatorri desberdinak dituzte. Unibertsitatearen jardueraren inguruan ahalik eta alderdirik gehien jasotzeko xedez hartu zen erabaki hori.

Horrela, datuak biltzeko hainbat metodo diseinatu ziren, lortu nahi zen informazio-motaren arabera; metodo hauek, hain zuzen:

### B.4.1. Unibertsitateko iturri publikoetako informazioa eta datuak biltzea

Onlineko datuen iturriak, funtsean, hauek izan ziren: unibertsitatearen webgune instituzionala, gardentasun-ataria, Datu Instituzionalen Sistema Integratua (SIDI) eta goi-mailako hezkuntzako datu irekien ataria (UniversiDATA).

### B.4.2. Trantsizio ekosozialari buruzko imajinarioen azterketa kualitatiboa

Honela osatu zen Konplutentseko komunitatearen trantsizio ekosozialari buruzko imajinarioen azterketa kualitatiboa:

- Helburuak:
  - 1) Unibertsitate-komunitateak trantsizio ekosozialari buruz duen imajinarioa aztertzea.
  - 2) Unibertsitatean GJHak betetzeko ekintzak gauzatzeko oztopoak eta erraztasunak identifikatzea.
- Teknika: 3 talde triangeluar (TT) osatzea eta 6 elkarrizketa sakon egitea.
- Laginaren diseinua: jasangarritasunarekiko sentikorrak diren ikasleen TT bat, sentikorrak diren emakume irakasle eta ikertzaileen (IRlen) TT bat, sindikatuen TT bat eta 6 elkarrizketa sakon, hauekin: sentikorrak ez diren IRlekin eta TEKAZELEkin (teknikariak eta kudeaketako, administrazioko eta zerbitzuetako langileak).
- Gaikako multzo handi hauez osatutako gidoia, profil-mota bakoitzari egokituta:

- Zer da zuentzat trantsizio ekosoziala?
- Zer iritzi duzu trantsizio ekosozialaren inguruko berariazko gaiei buruz?
- Zer oztopo eta erraztasun identifikatu dituzu, unibertsitatean GJHak betetzeko ekintzak gauatzeari begira?

### B.4.3. Politiken koherentzia-azterketa

Honela egin zen unibertsitatearen politika instituzionalen koherentzia-azterketa: UCMren zenbait dokumentu aztertu ziren, Unibertsitate Konplutentsearen ekintza, erabaki, akordio, topaketa, lankidetzak eta abarretan GJHein balizko inkoherentziak detektatzeko.

Dokumentu hauek aztertu ziren politiken koherentziari buruzko ikerketa horretan:

- Unibertsitatearen webgune instituzionalak.
- UCMren funtzionamendu instituzionala ofizialki gidatzen duten indarreko dokumentuak (gobernu-erabakiak, jasangarritasun-, jazarpen- edo gardentasun-protokoloak eta abar) aztertzea.
- Aparteko katedrei buruzko informazioa.
- UCMren gardentasun-atariko dokumentazioa.
- UCMko prentsa-bulegoaren prentsa-oharrak eta informazioa.

### Kontzeptu-esparrua

UCMk Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez izan ditzakeen inkoherentziak aurkitzeko, *dokumentu konstituzionalak* eta *dokumentu frogagarriak* deritzenen arteko konfrontazioa egin zen. Kategoria horiek honela definitu genituen azkenean, zentzu kolektiboko esparru bat ezartzearen: *dokumentu posizionalak* eta *dokumentu praktikoak* edo *ekintzakoak*.

*Dokumentu posizionalak* UCM erakundearen hedapentzat hartu behar dira, eta horietan jasotzen dira GJHeiko orientabideak eta posizionamenduak. *Dokumentu praktikoak*, berriz, erakundeak aurretik adierazitako jarrerarekin inkoherentziarik ba ote duen erakutsiko dute.

Helburua zen, beraz, Unibertsitate Konplutentseak 2016an 2030 Agenda ezarri zuenetik GJHein kontraesanetan zeuden alderdi sistematikoak aurkitzea. Horretarako, eskema honi jarraitu genion: **Dokumentu posizionala  $\neq$  Dokumentu praktikoa = Inkoherentzia.**

Inkoherentzia horiek aurkitzeko, datuak biltzeko metodo bat egituratu zen, UCMtik zetozen iturrien arabera.

| ID | Dokumentuaren izena                           | Dokumentu-mota    | URTEAN zenbatetsitako dokumentu-kopurua | GUZTIRA zenbatetsitako dokumentu-kopurua |
|----|-----------------------------------------------|-------------------|-----------------------------------------|------------------------------------------|
| 1  | Prentsa-oharrak                               | Lehen mailakoa    | 110                                     | 880                                      |
| 2  | UCMren atariko albisteak                      | Lehen mailakoa    |                                         | 50                                       |
| 3  | Katedrak                                      | Bigarren mailakoa | 55                                      | 440                                      |
| 4  | Hitzarmenak                                   | Bigarren mailakoa | 160                                     | 1280                                     |
| 5  | Kontratu txikiak, pribatuak eta premiazkoak*  | Bigarren mailakoa | 1700                                    | 13600                                    |
| 6  | Esparru-akordioetan oinarritutako kontratuak* | Bigarren mailakoa | 8200                                    | 65600                                    |
| 7  | Obra-kontratuak*                              | Bigarren mailakoa | 320                                     | 2560                                     |
| 8  | Kontratuak: adjudikaziodunak                  | Bigarren mailakoa | 100                                     | 800                                      |
| 9  | UCMko Gobernu Kontseiluaren erabakiak         | Lehen mailakoa    | 11                                      | 88                                       |
| 10 | Batzorde Iraunkorraren                        | Lehen mailakoa    | 12                                      | 96                                       |

|    | erabakiak                                           |                      |    |     |
|----|-----------------------------------------------------|----------------------|----|-----|
| 11 | Kontseilu Sozialaren osoko<br>bilkuretako erabakiak | Lehen mailakoa       | 12 | 96  |
| 12 | UCMren Aldizkari Ofiziala                           | Bigarren<br>mailakoa | 35 | 280 |
| 13 | UCMren Fundazio Orokorrek<br>sinaturiko hitzarmenak | Bigarren<br>mailakoa | 50 | 400 |

*1. taula: Datuak biltzeko atari potentzialak<sup>1</sup>. Norberak egina.*

\* Ezinezkoa da azterketa sistematiko bat egitea, dokumentuen kopurua eta horien interesa kontuan hartuta. UCMk azterketa-aldian sinatutako kontratuei dagokienez, erakunde adjudikaziodunak aztertzea proposatzen da (ID 8), eta kasu jakin batzuetan soilik aztertzea kontratuen edukia.

---

<sup>1</sup> *Lehen mailako dokumentutzat* hartu dira erraz eskura daitezkeen dokumentu unitario guztiak, argi eta garbi azter daitezkeenak eskuz edo adimen artifizialaren bidez. *Bigarren mailako dokumentutzat* hartu dira beste dokumentu batzuez osatuta egon daitezkeen eta eskuzko berrikuspen sakonagoa behar duten dokumentuak.

### Informazioa bilatzeko eta iragazteko metodologia

Dokumentazio-bolumen handia ikusita, eta bilaketa erraztearren, arakatzeko metodo bat sistematizatu zen, inkoherentziak izan zitzaizkiren dokumentu potentzialak hautatu, aztertu eta iragazteko.

Adimen artifizialaren (AAren) bidez, bilaketa-eredu sinplifikatu bat sortu zen, UCM 2030 Behatokia eratuakoa Gaikako Lantaldeetan (GLEtan) oinarritua. Gai-multzoko bakoitzak GJHei lotutako azpiguaiak edo gako-hitzak ditu.

AAk ereduaren prozesatu ondoren, hiztegi tematiko bat sortzen da, eta erreferentziatza hartzen da dokumentuak aztertu eta iragazteko. Iragazketa horrek fitxategi bat ematen du, hiztegiko gako-hitzetako batzuei lotutako paragrafoekin eta hitza zein den eta zein gai-multzori dagokion adierazita.

#### B.4.4. Datuak zuzeneko behaketaren bidez sortzea

GLEk hasieran definitutako adierazleetatik 25 zuzenean behatzearen bidez bildu ziren in situ datuak. Hain zuzen, adierazle horiei gainerako adierazleen batezbestekoari baino garrantzi handiagoa eman zitzaien emaitza orokorreari begira.

Helburu horrekin, irizpide hauek ezarri ziren:

- Behatokitikoa gaien arteko oreka. Horretarako, GL bakoitzak 4 edo 5 adierazle aukeratu zituen.
- Aukeratutako adierazleak oso garrantzitsutzat jo behar ziren.
- Era berean, aukeratutako adierazleek ez zuten informaziorik izan behar unibertsitatearen iturri publikoetan.

Horrela, 20-25 adierazle horiei buruz eta iturri publikoak berrikusiz lortutako informazioarekin, Behatokitikoa kideek *oso garrantzitsutzat* jotako alderdi guztiak jorratu nahi ziren, informazio hori lehendik zeuden datu-iturrietan eskuragarri egon ala ez. Behatokiak funtsezko informazio hori eskuratzeko ardura hartu zuen, 2030 Agendaren eta GJHen aplikazioan Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearen jardueraren osorik eta behar bezala ebaluatu ahal izateko.

### B.4.5. Ikaslearen Behatokiaren inkesta

Azkenik, UCMko komunitate osoari zuzendutako inkesta bat diseinatu zen, Ikaslearen Behatokiaren bidez. UCMn klima-alaketari buruzko pertzepzioa eta jarrerak ebaluatu zituen inkestak, eta 1.200 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte.

Inkestak gai hauen inguruko 34 galdera jaso zituen:

- Soziodemografikak.
- Gaurkotasunari buruzko informazioa ematen duten informazio-iturriak.
- Klima-alaketari buruzko pertzepzioa.
- Klima-alaketarekiko jarrerak.
- Unibertsitatearen zeregina klima-alaketaren aurrean.
- Zientziarekiko konfiantza klima-alaketari dagokionez.
- Klima-alaketari buruzko desinformazioa.
- Klima-alaketari buruzko konspirazio zehatzak.
- Klima-alaketari buruzko ezagutza.

Azkenik, askotariko metodo horien bidez bildutako datuak adierazle-sistemara eraman ziren, eta horrelaxe sortu zen adierazle konposatua. Horretarako, zegokien azterketa-mailaren arabera definitu ziren adierazleak.

## C. EMAITZAK

### C.1. Neurtu beharreko gaien zerrenda

2030 Agendaren eta GJHen aplikazioari dagokionez, unibertsitatearen jardueraren jarraipena egiteko kontuan hartu beharreko zenbait gai definitu zituzten GLe hiru azterketa-mailetarako —*Campus, Irakaskuntza eta Ikerketa, eta Diskurtso eta praktika*


*instituzionalak*—, proiektuaren bidez gerora argitaratu beharreko liburu kolektiboa osatuko zuten dokumentuetan islatuko zen lan teoriko guztia egin ondoren.

GLEk zehaztutako gai nagusi horiek txosten honen eranskinean kontsulta daitezke.

Unibertsitateak 2030 Agenda eta GJHak nola aplikatzen dituen ebaluatzeko kontuan hartu beharreko gai-zerrenda horretatik abiatuta, azterketa-maila bakoitzaren adierazleak zehaztu ziren.

## C.2. Adierazle konposatua

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearen jardura neurtzeko adierazle-sistema definitzeko prozesutik lortutako adierazle konposatuak 470 adierazle ditu, hiru azterketa-mailatan banatuta.



4. irudia: adierazle-sistema. Iturria: norberak egina.

Bi emaitza (adierazle bitar) soilik eskaini ditzaketen adierazleen ehunekoa adierazle guztien % 30 baino gutxiago izatea lortu zen, adierazle konposatuaren bidez lortutako informazioaren kalitateak okerrera egin ez zezan.

### C.3. Helburuen progresibitatea 2030era begira

2024-2030 aldiko urteetan azken ebaluazio-sistemaren definizioari buruz egindako eztabaida metodologikoetan, hauxe erabaki zen: adierazle konposatuaren kalifikazio-tarteak pixkanaka handitzea izango zela UCMren betetze-helburuak finkatzeko aukerarik arrazoizkoena, 2030 Agenda UCM 2030 Behatokiaren adierazle-sistemak zehazten duen moduan aplikatzeko.

Amaierako kalifikazio-tarteak gero eta asmo handiagokoak dira urtetik urtera, hasierako adierazle bakoitzerako gehieneko helburuetatik abiatuta

| 2024 |          | 2025 |          | 2026 |          | ..... | 2030 |          |
|------|----------|------|----------|------|----------|-------|------|----------|
| I    | 900-1000 | I    | 902-1000 | I    | 905-1000 |       | I    | 971-1000 |
| II   | 800-899  | II   | 802-901  | II   | 806-904  |       | II   | 926-970  |
| III  | 700-799  | III  | 700-801  | III  | 704-805  |       | III  | 859-925  |
| IV   | 600-699  | IV   | 596-699  | IV   | 599-703  |       | IV   | 759-858  |
| V    | 500-599  | V    | 500-595  | V    | 500-598  |       | V    | 500-758  |


5. irudia: helburuen progresibitatea. Iturria: norberak egina.

Horrela, erraztu egiten dira adierazleen trazabilitatea eta helburuak betetzeko unibertsitatearen planen nahitaezko aurreikuspena.

#### Progresibitate linealaren eta progresibitate gorakor esponentzialaren arteko eztabaida

Behatokiak 2030 Agendaren helburuak betetzeko 2024tik 2030era bitarteko hainbat ibilbide aztertu zituen, adierazle-sisteman zehaztutakoari jarraituz.

Bi ibilbide-mota handien artean (lineala eta esponentziala), komenigarriagotzat jo zen esponentziala erabiltzea, prozesuaren hasieran (aldi horretan) egiturazko aldaketak errazago egiteko eta, horrela, prozesuaren amaieran aldaketak eta hobekuntzak azkarrago egin ahal izateko.



6. irudia: 2030erako helburuak betetzeko ibilbide lineal eta esponentziala. Iturria: norberak egina.

Irudian ikus daitekeenez, ibilbide linealak malda konstantea du 2024tik 2030era bitarteko aldi osoan, 2030ean azken helburua lortzeko. Malda horrek —grezierazko  $\alpha$  hizkiarekin irudikatzen da— balio bera du ibilbide osoan, eta horrek esan nahi du esfortzu-maila antzekoa dela epealdiko urte bakoitzean.

Ibilbide esponentzian, berriz, ibilbidearen malda txikiagoa da lehen urteetan azken urteetan baino. Adibidez, 2025. urteko malda (grezierazko  $\beta$  hizkiak adierazia) askoz txikiagoa da ibilbide linealekoa ( $\alpha$ ) eta 2027. urteko malda (grezierazko  $\gamma$  hizkiak adierazia) baino. Era berean, ikus dezakegu 2027. urteko malda lineala eta esponentziala antzekoak direla ( $\alpha \sim \gamma$ ), nahiz eta malda lineala oraindik handiagoa izan. Baina, urte horretatik aurrera, ibilbide esponentzialaren malda azkarrago hazten da, eta 2029ko malda aurreko urteetako eta ibilbide linealekoa baino askoz handiagoa da. Irudian ikus daitekeenez, 2029. urteko ibilbide esponentzialaren malda (grezierazko  $\delta$  hizkiak adierazten duena) beste guztiak baino askoz handiagoa da ( $\delta \gg \beta, \gamma, \alpha$ ). Horrek esan nahi du azken urteetako ahaleginak askoz handiagoak izan beharko direla, 2030ean helburuak betetzeko.


Azalpen teoriko horrek isla du 2024-2030 aldiko urte bakoitzerako adierazle konposatuaren helburu zehatzen balioetan.

Aldez aurretik, kalifikazio-tarteen (I, II, III, IV, V) dimentsioa kalkulatzen da 2024-2030 aldiko urte bakoitzerako. Horretarako, ibilbide esponontziala aplikatzearen ondoriozko progresio-faktore berberak erabiltzen dira. Horrela, irudi honetan ikus daitekeenez, kalifikaziorik zorrotzenak dituzten tartearak ere gero eta txikiagoak dira, ibilbide esponontzialeko ahaleginaren eboluzioarekin bat etorriz.

| 2024 | Tartea | Pisua | 2025 | Tartea | Pisua | 2026 | Tartea | Pisua | 2027 | Tartea | Pisua |
|------|--------|-------|------|--------|-------|------|--------|-------|------|--------|-------|
| I    | 100    | 0,20  | I    | 98,44  | 0,20  | I    | 95,36  | 0,19  | I    | 89,40  | 0,18  |
| II   | 100    | 0,20  | II   | 99,98  | 0,20  | II   | 98,34  | 0,20  | II   | 94,99  | 0,19  |
| III  | 100    | 0,20  | III  | 101,54 | 0,20  | III  | 101,41 | 0,20  | III  | 100,93 | 0,20  |
| IV   | 100    | 0,20  | IV   | 103,12 | 0,21  | IV   | 104,58 | 0,21  | IV   | 107,23 | 0,21  |
| V    | 100    | 0,20  | V    | 96,92  | 0,19  | V    | 100,30 | 0,20  | V    | 107,45 | 0,21  |

| 2028 | Tartea | Pisua | 2029 | Tartea | Pisua | 2030 | Tartea | Pisua |
|------|--------|-------|------|--------|-------|------|--------|-------|
| I    | 78,23  | 0,16  | I    | 58,67  | 0,12  | I    | 29,33  | 0,06  |
| II   | 88,00  | 0,18  | II   | 73,34  | 0,15  | II   | 44,00  | 0,09  |
| III  | 99,00  | 0,20  | III  | 91,67  | 0,18  | III  | 66,00  | 0,13  |
| IV   | 111,38 | 0,22  | IV   | 114,59 | 0,23  | IV   | 99,00  | 0,20  |
| V    | 123,38 | 0,25  | V    | 161,73 | 0,32  | V    | 261,65 | 0,52  |

7. irudia: adierazle konposatuaren kalifikazio-tarteen banaketa eta horren pisu erlatiboa 2024-2030 aldian. Iturria: norberak egina.



8. irudia: adierazle konposatuaren kalifikazio-tarteen pisu erlatiboaren banaketa 2024-2030 aldian. Iturria: norberak egina.

Kalkulu horiek, orain bai, 2024-2030 aldiko urte bakoitzean kategorien arabera puntuazioetara (I, II, III, IV eta V) eramanda, irudi honetan ageri diren kalifikazioak ematen dituzte.

| 2024 |          | 2025 |          | 2026 |          |
|------|----------|------|----------|------|----------|
| I    | 900-1000 | I    | 902-1000 | I    | 905-1000 |
| II   | 800-899  | II   | 802-901  | II   | 806-904  |
| III  | 700-799  | III  | 700-801  | III  | 704-805  |
| IV   | 600-699  | IV   | 596-699  | IV   | 599-703  |
| V    | 500-599  | V    | 500-595  | V    | 500-598  |

| 2027 |          | 2028 |          | 2029 |          |
|------|----------|------|----------|------|----------|
| I    | 911-1000 | I    | 922-1000 | I    | 942-1000 |
| II   | 815-910  | II   | 833-921  | II   | 868-941  |
| III  | 713-814  | III  | 733-832  | III  | 776-867  |
| IV   | 605-712  | IV   | 621-732  | IV   | 661-775  |
| V    | 500-604  | V    | 500-620  | V    | 500-660  |

| 2030 |          |
|------|----------|
| I    | 971-1000 |
| II   | 926-970  |
| III  | 859-925  |
| IV   | 759-858  |
| V    | 500-758  |

9. irudia: 2024-2030 aldiko adierazle konposatutik ateratako kalifikazioen banaketa. Iturria: norberak egin.

## 2. Bidezko oparotasunerako trantsizio ekosoziala egiteko beharrezko imajinario berriak

2024. urtean, UCM 2030 Behatokiak gogoeta egin du trantsizio ekosozialen erronkei aurre egiteko azterketa-, ulermen- eta eraldaketa-imajinario berriak sortzeko eta garatzeko beharrari buruz, ikertzaile-taldeak egindako 2030 Agendaren eta GJHen irakurketaren esparruan. Jarraian, gai horri buruz antolatu diren gogoeta-saioen emaitza nagusiak azalduko dira.

## 2.1. Unibertsitate-komunitatearen egungo imajinarioen azterketa kualitatiboa

Konplutentseko unibertsitate-komunitatearen egungo imajinarioen azterketa kualitatiboak parte-hartzaileen diskurtsoa aurkezten du, trantsizio ekosozialari eta UCMren esparruan trantsizio hori erraztu eta zailtzen duten alderdiei buruz. Hortaz, azterketak bi elementu handi hauek ditu:

- a. **Ideiak**, zeinetan trantsizio ekosozialari buruzko parte-hartzaileen ideologia eta gogoetak islatzen baitira, aurreko paragrafoan aipatutako bost gai-multzoetan antolatuta.
- b. **UCMren trantsizio ekosozialean eragina duten praktikak**, zeinetan trantsizio ekosozialerako oztopo eta erraztasun nagusiak jasotzen baitira UCMren testuinguruan, proiektuaren intereseko hiru azterketa-mailen arabera egituratuta.

Bi azterketa-elementu horiek Konplutentseko komunitateko kideei banaka eta taldeka egindako elkarrizketetan lortutako emaitzetan islatzen dira, atal hauetan deskribatzen denez: trantsizio ekosozialei buruzko ideia orokorrak eta gaikako ideiak.

### 2.1.1. Ideia orokorrak

Parte-hartzaileen diskurtsoan, **trantsizio ekosozialari buruzko alde aurreko ezagutza eta hausnarketa** antzematen dira. Parte-hartzailerik gehienek sentsibiltate handia erakutsi zuten gai honi buruz, eta arlo horretan prestakuntza espezifiko zutela adierazi zuten elkarrizketatutako pertsona batzuek. Elkarrizketatutako 15 pertsonetatik bik soilik adierazi zuten kontzeptua ez zutela ezagutzen, eta batez ere pertsona horiek lotu zuten trantsizio ekosozialaren definizioa Nazio Batuen Erakundearen munduko itunaren GJHein.

Parte-hartzaileek trantsizio ekosozialari buruz egin zituzten **aurreneko hausnarketarik** gehienak **ingurumenari eta ekonomiari** lotutako gaiei buruzkoak izan ziren. Naturaltasunez, elkarrizketatzailearen esku-hartzerik eta bideratutako galderarik gabe, parte-hartzaileek funtsezkotzat jo zituzten alderdi horiek, trantsizio ekosoziala ulertzeko. Neurri txikiagoan, parte-hartzaile batzuek **berdintasunari, aniztasunari eta justizia**

**sozialari** buruzko gaiak ere aipatu zituzten; baina, bat-bateko diskurtsoan, gai horiek ez zuten posizio zentralik.

Bestalde, **gobernantza ez zen** parte-hartzaileen hasierako **hausnarketetan agertu**, eta horrek iradokitzen du alderdi hori ez dela berehalakoan trantsizio ekosozialaren funtsezko osagaitzat hartzen unibertsitatearen testuinguruan. Gainera, **pertsona bakarrak aipatu zituen osasun- eta elikadura-gaiak**, eta pertsonen «ongizatea» bermatzearen garrantzia azpimarratu zuen.

Oro har, parte-hartzaileek trantsizio ekosozialari buruz diotenak erakusten du beharrezkoa dela **ekonomia- eta kontsumo-ereduaren egiturazko aldaketa**. Jasangarritasunak eta ekitateak sistemaren berregituraketa sakona eskatzen dute; horretan zabala da adostasuna. Berregituraketa horretan, elkarrizketatutako profil gehienen arabera, ikusarazi egin behar dira hazkunde ekonomikoaren egungo ereduak alboratzen dituen ingurumen-kostuak, eta aurre egin behar zaie. Ikuspegi eraldatzaile hori trantsizio ekosozialari buruzko ideologia aurrerakoi eta kritikoa zuten profiletatik jaso zen —elkarrizketatutako pertsona gehienen orientazio ideologikoa izan zen—. Elkarrizketatutako ikasle, irakasle eta sindikatu batzuek esplizituki aipatu zuten «*ekologistak eta antikapitalistak*» zirela, kapitalismoa «*estraktibista eta patriarkala*» delako.

Parte-hartzaile batzuek nabarmendu zutenez, politikari eta gobernantzari lotutako neurri sistemikoak eta egiturazkoak hartzea funtsezkoa bada ere, **banakako ekintzek edo mikro-mailakoek** ere garrantzi handia dute trantsizio ekosozialean, aldaketa eta mugimendu kolektibo bihurtzeko ahalmena baitute.

Hainbat parte-hartzailek azpimarratu zuten egungo ekonomia- eta kontsumo-ereduak eragindako ingurumen-krisia eta ekosistemen narriadura ezin direla bereizi **desberdintasun sozialen** areagotzetik, eta iradoki zuten trantsizio ekosoziala ere integratu behar dela ekitatea eta justizia soziala lantzen dituzten neurriekin.

Ikasleek aho batez nabarmendu zuten «trantsizio ekosozialez» (pluralean) hitz egin beharra dagoela, eta **dekolonialismoaren** ikuspegia integratu zuten gaiari buruzko ideologian.

Ikuspegi hori IRlen profileko pertsona batzuen ikuspegiarekin lotzen da. Pertsona horiek **justizia soziala** aipatu zuten trantsizio ekosozialaren alderdi nagusi gisa, eta adierazi zuten gai horretan arretarik ez jartzeak desparekotasun gehiago sor zitzakeela trantsizioan zehar.

Bestalde, ikasleen taldeak gaitzetsi egin zuen trantsizio ekosoziala «garapen jasangarriaren» kontzeptuari lotuta egotea beti. Horren ordez, garapenaren jasangarritasunetik haratago doazen jarrerak defendatu zituzten, eta aurrerapenaren eta garapenaren paradigma bera gainditzeko beharra nabarmendu zuten, kapitalismoaren jarraipentzat hartzen baitute.

Irakasleen talde mistoan elkarriketatutako pertsonetako batek aipatu zuen trantsizioa **premiatzkoa** dela, eta taldean bat etorri ziren guztiak. Bestalde, sindikatuko ordezkari baten ustez, **trantsizioarekiko sentsibilitateak belaunaldi-ezaugarri indartsua du**, gazteek zaharrek baino kezka handiagoa baitute gai horren inguruan.

Parte-hartzaileen diskurtsoak erabateko adostasuna erakusten du **UCMk trantsizio ekosoziala egiteko duen beharrarekin**. Diskurtso horren ardatz nagusiak izan ziren kontsumo-estrategia jasangarriagoak hartzea, azpiegiturak birmoldatzea eta abar. Gainera, IRlen taldeetan adierazi zutenez, unibertsitateetan sortzen den ezagutza ere trantsizioa egin behar da, aurrerapenaren eta garapenaren paradigmantik aldentzeko.

Era berean, erabateko adostasuna dute **UCMk trantsizio ekosozialean funtsezko eginkizuna betetzeko duen erantzukizunari eta ahalmenari buruz**. Oro har, unibertsitatea trantsizio ekosoziala gidatzeko eta moldatzeko gune ezin hobea dela uste dute, erakunde hezitzaile eta ezagutza zientifikoaren ekoizle gisa duen rolagatik. Parte-hartzaileek aipatzen dute unibertsitatea leku egokia dela trantsizio ekosoziala bultzatuko duen ezagutza zorrotza sortzeko, baita beste komunitate edo gizarte batzuentzat eredu izango diren jardunbideak garatzeko ere.

Hala ere, IRLen eta TEKAZELen profileko zenbait partaideren arabera, **UCM oso urrun dago gaur egun trantsizio-prozesutik**, erakundearen egituren immobilismoagatik eta dituen oztopoengatik (adibidez, ekonomikoengatik).

### 2.1.2. Gaikako ideiak

Jarraian, parte-hartzaileek alderdi zehatzagoen inguruan dituzten ideietan sakonduko dugu: ekonomia; ingurumena; berdintasuna, justizia soziala eta aniztasuna; osasuna eta elikadura, eta, azkenik, gobernantza.

#### **Ekonomia**

Ekonomiari buruzko diskurtsoaren inguruan adostasuna dago: **hazkunde ekonomikoaren** egungo sistemak **eragin negatiboa du ingurumenaren eta gizartearen** jasangarritasunean. Gehienek uste dute indarrean dagoen eredu ekonomikoa jasanezina dela, ingurumen-kostuak kanporatzen dituelako eta ez dituelako kontuan hartzen ekoizpenak ingurumenean eta gizartean dituen eragin negatiboak.

Ikuspegi horren barruan, **bi jarrera** identifikatzen dira. Sindikatuen, ikasleen eta IRLen mugimenduei lotutako pertsona batzuek adierazi dutenez, kapitalismoa, hazkunde mugagabearen inguruko ikuspegiarekin, funtsezko oztopoa da edozein esparrutako trantsizio ekosozialerako. Hortaz, jarrera **antikapitalistak eta desazkundekoak** defendatu dituzte. Beste batzuek diote **ez zaiola garapenari uko egin behar**, baizik eta ingurumen-kostuak egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduan kontuan hartzea izango litzatekeela irtenbidea.

**Unibertsitatearen barne-ekonomiari dagokionez**, parte-hartzaileek nabarmendu dute **gardentasun handiagoa eta baliabide ekonomikoen kudeaketa bidezkoagoa** behar direla. Zenbait ahotsek aipatu dute UCMk jasangarritasuna eta ekitatea lehenesten dituzten jardunbide eta politiketara bideratu beharko lukeela bere aurrekontua, eta alde batera utzi beharko lituzkeela hain estrategikoak ez diren gastuak, unibertsitate-komunitateari eta horren ekitateari zuzeneko onura ekarriko dieten baliabideen erabileraren mesedetan.

## Ingurumena

Parte-hartzaileek ingurumenaren inguruan erakutsitako diskurtsoak adostasun orokorra du **gizakiak jarrera jasangarriak hartzearen** garrantziaz, eta baliabide naturalak eta horien amaikortasuna kontuan hartzeaz. Parte-hartzaile guztien ustez, begien bistakoa da ingurumenaren degradazioak ekintza antropikoarekin duela zerikusia.

Parte-hartzaile askok egungo **ekoizpen- eta kontsumo-ereduarekin** lotzen dituzte jarrera-aldaketa horiek. Diskurtso horrek garapen kapitalistaren ereduari lotutako arriskuekiko kontzientziazio orokorra islatzen du, eredu hori ingurumen-degradazioaren eragileztat hartzen baita. Parte-hartzaileek azpimarratu dute ekonomiaren deskarbonizazioa eta erregai fosilak uztea trantsizio ekosozialerako funtsezko ekintzak direla.

## Berdintasuna, justizia soziala eta aniztasuna

Berdintasuna eta aniztasuna lehentasunezko gaiak dira parte-hartzaileen diskurtsoan. Gai horien inguruan, batez ere **genero-berdintasunari** buruz hitz egin zuten. Parte-hartzaile gehienen iritziz, gizonen eta emakumeen artean desoreka handiak daude, eta parte-hartzaileetako batzuek esplizituki adierazi zuten trantsizio ekosozialak feminista izan behar duela.

**Klase sozioekonomikoen arteko desparekotasuna** ere aipatu zuten elkarriketatu askok, eta adierazi zuten pertsonen artean desoreka material eta sozial handiak daudela UCMko komunitatearen barruan eta kanpoan, eta horiek kontuan hartu behar direla trantsizio ekosozialerako.

Oihartzun txikiagoa izan zuen gai bat, zenbait parte-hartzailek aipatua, **dibertsitate funtzionala** eta horren ondoriozko balizko desorekak izan ziren. **Arraza-aniztasuna** ikasle-taldeko parte-hartzaileek bakarrik aipatu zuten, eta **sexu-orientazioa** azaletik baino ez zen aipatu emakumezko IRlen taldean.

Oro har, oso hedatuta dago UCMk ekitatea eta aniztasuna sustatu behar dituelako ustea, eta bi jarrera nagusi identifikatu dira: batetik, gehiengoaren jarrera ezkorragoa edo erakundearekiko kritikoagoa eta, bestetik, jarrera baikorragoa, taldeetan minoritarioa dena. Lehenengoen ustez, **UCMko berdintasunaren arloko erakunde-politikak eta aurrerapenak ez dira nahikoak izan**. Pertsona horien ustez, Konplutentseak gizartean dauden desberdintasunak islatzen ditu bere egituran, generoari, gizarte-klaseari, dibertsitate funtzionalari eta arrazari dagokienez.

Parte-hartzaile horiek azpimarratu dute **UCMn desorekak daudela** lan-kategorien artean edo ikasleen eta irakasleen artean, baita kategoria bereko pertsonen artean ere (genero-desorekak ikasleen edo irakasleen artean, adibidez). Ikasleen, sindikatuen eta IRlen profileko parte-hartzaile batzuek adierazi dutenez, desorekek ez die pertsonei bakarrik eragiten; aitzitik, beste eremu batzuetan ere desberdintasunak daude, hala nola ezagutza sortzeko moduan edo UCMk eskaintzen dituen titulazioetan, besteak beste.

Gutxiengoak, berriz, ikuspegi baikorragoa du gai horren inguruan UCMn egindako lanari buruz, eta defendatzen du **erakundeak gai horietan egindako ahaleginak nabarmenak eta azpimarragarriak** izan direla, eta kontrako iritzia duen parte-hartzaileek uste dutena baino eragin onuragarriagoa izan dutela UCMko komunitatearen berdintasunean eta aniztasunean. Pertsona horiek TEKAZELen profilekoak dira, baita ordezkari sindikalen bat eta IRlen profileko pertsonaren bat ere.

IRlen profilekoek eta ikasleen profilekoek aipatu zutenek, **justizia soziala** izan behar da trantsizio ekosozialaren ardatza. Adostasuna dago trantsizio ekosozialaren prozesuak iparralde eta hegoalde globalen artean dauden bidegabekeria sozialak errepika ditzakeela esatean. Izan ere, kolektiborik kalteberenen errealitateak ikusezin bihur ditzake, orain arte bezala.

## Osasuna eta elikadura

Esparru horietan jasagarritasunaren eta ekitatearen inguruan nolabaiteko kezka badago ere, osasunari eta elikadurari buruzko **gaien eztabaida neurritsuagoa** izan zen parte-hartzaileen artean, aurretik garatutako gainerako esparruekin alderatuta. Osasun mentalaren eta ingurumen-arazoen arteko loturaren ideia sortu zen ikasleen taldean. Izan ere, «**ekoantsietatea**» bezalako kontzeptuak azaleratzen eta kezka bihurtzen ari dira gazteen artean. Ideia horrek argi eta garbi islatzen du klima-aldaketak eta etorkizun zalantzarriaren pertzepzioak ikasleen ongizate emozionalean duen eragina, batez ere sentitzen dutelako batzuetan gutxietsi egiten direla ingurumen-arazoak eta arazo horiek beraiengan duten eragin emozionala.

Ikasleek interes berezia dute osasun mentalean, uste baitute **unibertsitateak eragin negatibo** nabarmena izan dezakeela **ikasleen ongizate emozionalean**, unibertsitate-ikasketen berezko presio eta zurruntasun handiak direla eta. Ikuspegi hori ez dator bat TEKAZELen profileko pertsona batek defendatzen duenarekin. Izan ere, horren iritzian, bizi duten bizitzako unearekin du zerikusia ikasleen artean osasun mentaleko arazo gehiago egoteak, ez unibertsitatearekin edo irakaskuntza-antolamenduari lotutako alderdiekin.

Ikasle parte-hartzaileek adierazi dute **osasun mentalari lotutako ekimen eta proiektu asko daudela UCMn**. Zehaztu dute, ordea, ekimen horiek urrun daudela benetako eragina izatetik, eta sumatzen dute UCMren estrategiak izan daitezkeela, *irudi ona emateko* neurriak hartzen ari direla erakusteko.

Jasagarritasunarekiko kezka ere nabari da **elikadurari** lotutako gaietan, kalitatezko elikagai jasagarri eta osasungarrien eskuragarritasunari dagokionez, bai unibertsitateko campuseko jatetxe-zerbitzuetan, bai banagailuetan eta *vendingeko* makinetan.

## Gobernantza

Trantsizio ekosozialeko gobernantzak nolakoa izan beharko lukeen aztertze orduan, osasunarekin eta elikadurarekin gertatu zen bezala, **nahiko gutxi komentatu** zen gaia talde eta elkarrizketetan. IRlen profileko parte-hartzaileetako batek bakarrik hitz egin zuen gobernantzari eta politikari buruz, trantsizio ekosozialeko elementu nagusi gisa.

Parte-hartzaileek gobernantzari buruz azaldutako diskurtsoa unibertsitatearen testuingurura mugatu zen batez ere, eta ez zen meso- edo makro-mailako gobernatzako erakundeei buruzko aipamenik egin. TEKAZELen, IRLen eta sindikatuen profiletako parte-hartzaile batzuek **UCMko gobernantza-erakundeak demokratikoak eta partaidetzakoak** direla defendatzen zuten. Pertsona horiek ziurtatzen dute unibertsitateak formalki demokratikoa den egitura bat duela, non kargu guztiak hautatzen diren eta kide anitzeko organoen bidez unibertsitate-komunitateko sektore guztien ordezkaritza bermatzen den.

Egitura demokratiko hori gorabehera, diskurtsoan badaude ahots kritiko batzuk, eta, horien ustez, **unibertsitate-komunitateak prozesu demokratikoetan parte-hartze txikia** izateak prozesu horien eraginkortasuna mugatzen du. Ikuspegi hori agerian geratu da parte-hartzaile batzuen iritzietan. Horien arabera, hizpide duguna *isileko demokrazia* da. Parte hartzeko mekanismoak egon badauden arren, horiek ez dute beti sortzen komunitateko ahotsak eraginkortasunez integratzeko beharrezko konpromisoa.

Gainera, IRLen taldeko parte-hartzaileek adierazi zutenez, **erakundeek bultzatutako parte hartzeko prozesuek ahalmen mugatua** dute **benetako aldaketa bat sortzeko**, goitik behera sortutako ekimenez hartzen direlako. Pertsona horien arabera, horrek kontraesana sortzen du; izan ere, alde batetik, positiboa da erakundeak parte hartzeko eremuak sustatzea; baina, bestetik, horrek mugatu egiten du erakundearen barneko eragite-gaitasuna.

**Laburbilduz**, parte-hartzaileek trantsizio ekosozialari buruzko ideien inguruan adostasun handia dute, eta egungo ekonomia- eta kontsumo-ereduan egiturazko aldaketa sakonak egiteko beharra ikusten dute. Horien arabera, egungo eredia jasangaitza da, estraktibista eta patriarkala delako. Gainera, parte-hartzaileak bat etorri dira UCMk trantsizio ekosozialaren eragile gisa duen funtsezko zereginaren inguruan, bai ezagutza sortzeko, bai jardunbide eredugarriak ezartzeko orduan. Parte-hartzaileek trantsizio ekosozialari buruz egin dituzten hasierako hausnarketak ingurumen- eta ekonomia-alderdietara zuzendu dira gehienbat. Beste alderdi batzuek ere, hala nola berdintasunak, justizia sozialak eta aniztasunak, funtsezko garrantzia dute, nahiz eta berezko diskurtsoetan hain zentralak ez izan. Adostasun handia dago UCMn generoaren, alderdi sozioekonomikoaren eta dibertsitate funtzionalaren inguruko desorekei heltzeko garrantziaren inguruan. Azkenik,

eztabaida txikiagoa izan da osasunari eta gobernantzari buruzko alderdien inguruan, baina parte-hartzaile batzuek alderdi horiek trantsizioaren funtsezko osagai gisa txertatuko dituen ikuspegi integralaren garrantzia azpimarratu dute. Parte-hartzaileek hobetzeko aukerak identifikatu dituzte, UCMko gobernantza-erakundeak demokratikoagoak izan daitezen bermatzeko, eta osasun mentalari, ekoantsietateari eta elikadurari lotutako gaietan zentratu dute osasunaren gaineko diskurtsoa.

## 2.2 Unibertsitatearen eta zientziaren zeregina trantsizio ekosozialetan

### **KRISI EKOSOZIALAREN AURREAN, ZER UNIBERTSITATE BEHAR DUGU ZER GIZARTERENTZAT?**

#### **Erronkak eta proposamenak trantsizio ekologikoaren eta negazionismo zientifikoaren aurrean**

Gai honi buruzko hausnarketa kolektibotik ondorioak ateratzeko, mahai-inguru bat egin zen. Moderatzailea Victor Alonso Rocafort izan zen, Politika Zientzien eta Soziologiaren Fakultateko irakasle eta ikertzailea eta Behatoki kidea. Parte-hartzaileak, berriz, hauek izan ziren: Astrid Wagner, CSICeko Filosofia Institutuko zientzialari titularra; Francisco Heras, ingurumen-hezitzailea eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoko Egokitzen Arloko kidea, eta Laura Nuño de la Rosa, UCMko Filosofia Fakultateko irakasle eta ikertzailea.

Mahai-inguruko lehen hurbilketak testuinguruan kokatu nahi izan zuen unibertsitatearen rolari buruzko hausnarketa, krisi ekosoziala egoki diagnostikatzen eta emantzipatzeko aukerak planteatzen lagunduko duten ezagutza eta narratibak sortzeko gaitasuna duen eragilea den aldetik.

Ildo horretan, garrantzitsua da zientziaren ikuskera kritikoa artikulatzea, eta zientzian eta zientzia-proiektuetan joerak eta balioak daudela onartzea, zientziaren filosofiaren azken garapenen ildotik. Hala ere, ikuskera horrek ez ditu zientziaren balioa eta ahalmena baliogabetzen, alderantziz baizik. Aurrean dugun erronkarik handienetako bat zera da: zientzia egungo paradigmaren arabera ulertzea, ikuspegi eta metodoen aniztasuna kontuan hartuz eta, aldi berean, adostasun zientifikoak (aldi baterakoak badira ere) ezarri, komunitate zientifikoaren egiaztapen- eta ebaluazio-lan zorrotza abiapuntu hartuta.

Bestalde, demokraziaren zerbitzura dagoen zientzia bati laguntzen dioten narratiba emantzipatzaileak balio demokratikoetan oinarritzen dira, hala nola giza eskubideen errespetuan, askatasunari edo justiziarri lotutako aurrerapenetan eta, beraz, onartutako konpromiso sozial eta politiko esplizituan. Zentzu horretan, jarrera argia dago edozein manipulazio-tresna erabiltzearen aurka.

Behatokiaren lehen zeregin interesgarria izango litzateke datuak egiaztatzen, zorrotasuna sortzen eta faltsututako eta manipulaturako interpretazioak kritikatzeko jarraitzea. Beste erronka nagusi bat da ziurgabetasuna onartzeko gai den zientziaren nozio bat hurbiltzea herritarrei; hain zuzen ere, ziurtasun unibertsal eta betikoa aurkitzea xede duen positibismo baten kontzepzio zaharkituenetatik urrun dagoen nozio bat, are gehiago negazionismo batzuen eskutik erlatibismoa aurrera egiten ari dela ikusita.

Ondoren, galdera hauek sortzen zaizkigu: zer baldintzatan hausnartzen eta sortzen da ezagutza zientzia- eta unibertsitate-eremuan?, zer proiektzio du ezagutza horrek kanpora begira?, eta nola lotzen da ordezkartza politikoarekin? Elkarren arteko loturarik ez duten eremu hermetikoak dira akademia eta gizartearen edo politikaren gainerako esparruak? Horrela bada, zer bide sustatu beharko lirateke elkarriketa, aberastea eta koprodukzioa ahalbidetzeko?

Zientzia ez da ulertu behar elite batzuek laborategi sekretuetan edo marfilezko dorreetan egiten duten jardura gisa. Esan bezala, zientziak ez du ziurtasun absoluturik sortzen, baizik eta ikerketaren egoera ebolutiboak, berrikuspen-prozesuen mende dauden behin-behineko ziurtasunak. Ez da ezagutza zientifikoaz soilik hitz egin behar, baizik eta praktika zientifikoez, eta horiek kontrolatzeko eta berrikusteko mekanismoez. Zientzia umiltasun epistemikotik azaltzea da unibertsitatean egiteko dagoen zereginetako bat. Izan ere, erabateko ziurtasunik sortzen ez duen zientzia da gure bizitzak bideratzeko eta beharrezko eraldaketak bultzatzeko dugun gauzarik fidagarri eta zorrotzena.

Harremani dagokienez, bi noranzkoko bidea egin behar da unibertsitatearen eta gizartearen artean, eta horri hirugarren erpin bat gehi diezaiokegu: politikaren eremua. Konexio horiek oztupoz beteta egoten dira askotan, eta horietako batzuek lotura estua dute unibertsitateko baldintzekin; besteak beste, gobernantza akademikoarekin, langileen ebaluazioarekin edo proiektuen finantzaketarekin. Garrantzi handikoa da nola antolatzen den irakaskuntza- eta ikerketa-jardura, diziplina eta espezializazio-azpiarlu itxien arabera,

oso zaila baita horien artean ibiltzea. Partzelazio horrek, askotan, *ezjakin hiperespezializatuak* sortzen ditu, inolako gizarte-konpromisorik ez dutenak.

Era berean, kontuan hartu behar da unibertsitatearen eta gizartearen artean desadostasunak sor daitezkeela, erabiltzen den hizkuntzari lotuak batzuk; izan ere, batzuetan, hizkera desberdinak erabiltzen dira herri-kulturan eta unibertsitatean. Adibidez, unibertsitatean ziurgabetasunaren kontzeptuak beti berriak daitezkeen ezagutzaren aurrean zuhur ibili behar dela adierazten du; herri-kulturan, aldiz, zerbait ez-ziurra izatea egiazkoa ez izatearen sintoma da. Horrela, askotan, unibertsitateak ezagutza eta informazioa helarazten da herri-kulturan beste era batera interpretatzen diren kontzeptuen bidez.

Rola aldatzearen alde egin behar dugu, eta harmonia eta bidezkotasun handiagoz integratu behar dugu gizarte- eta ingurumen-testuinguru jakinetan arazo zehatzak konpontzen saiatzen diren giza talde edo ekipoetan. Unibertsitate-testuingurutik kanpoko pertsona baten ikuspegitik, funtsezkoa da rol-aldaketa hori. Errazagoa da emaitza onak lortzea, esparru akademikoko, administratiboko eta sozialeko proiektu komunak uztartzen direnean. Hori guztia gizarte- eta ingurumen-justiziaren ikuspegitik egin behar da, non kalteberak diren eta, oro har, azpiordezkatuta dauden taldeen ahotsak aintzat har daitezkeen, baita hegoalde globaleko bazkideenak ere, irizpide interseksional baten bidez.

Unibertsitate publikoaren defentsa sarbide-baldintzei (finantzaketa publikoari eta sarbide unibertsalari) buruzko aldarrikapenetik harago joan behar da, eta zer ikertu nahi dugun, zer finantzatu nahi dugun, zer irakatsi nahi dugun... aintzat hartu behar du. Zientziak proiektu soziala izan behar du, eta, beraz, nahi dugun gizartearen zerbitzura egon. Nahi dugun unibertsitateari buruzko eztabaidaren ertz horiek agenda politikotik kanpo daude, eta joan-etorriko inplikazioak dituzte unibertsitatearen eta politika publikoen artean. Hori berraztertzeak zera dakar: zer zientzia-mota nahi dugun eta zer gizarte-motarentzat nahi dugun pentsatzea.

Ezagutza zientifikoa unibertsitateak gizartera transferitzeari dagokionez, zientziaren dibulgazioa edukien dibulgaziora mugatu izan da tradizionalki; hau da, aurrerapen zientifikoak publiko ez-espezializatuarentzat ulergarri nola azaldu hartu du ardatz. Ahalegin handiagoa egin beharko litzateke jarduera eta sistema zientifikoak nola funtzionatzen duten azaltzeko. Eta azpimarratu eta nabarmendu behar da ikerketa zientifikoaren emaitzak

behin-behinekoz egiazkoak eta fidagarriak direla, nahiz eta sistema zientifikoaren inguruan askotariko interesak dauden.

Azkenik, unibertsitate-komunitateak (erakunde, irakasle, ikertzaile eta ikasleek) jokatu beharreko rolari buruz hausnartu zen mahai-inguruan, gizartearen norabidea bideratzeko eragile garrantzitsua den aldetik.

Neurri handi batean, galdera horiei erantzuteko ezinbestekoa da diskurtsoaren eta praktikaren arteko barne-koherentzia. Gure gizartean kontraesan etengabea bizi gara: batetik, krisi ekosozialari eta horren inguruko larrialdiari buruzko mezu esplizituak ditugu eta, bestetik, planteamendu horiekin zerikusirik ez duen bizimodua daramagu, ezer gertatuko ez balitz bezala. Bidea, beraz, mezua da, eta, hor, diskurtsoa indargabetzen duen arazo bat dugu. Lehen lan-ildoak gutxieneko koherentzia bat duten giro eta planteamenduak sortzera bideratu behar dugu, eta hori funtsezkoa da diskurtsoak sinesgarritasuna izan dezan.

Funtsezko beste alderdi bat unibertsitate-komunitatearen autoantolaketako prozesuak bultzatzea da. Izan ere, ikertzaileok gure ikerketa partekatzeko eremuak bilatu behar ditugu, logika produktibistatik irten, hura gainditu eta beste gauza batzuk ikusteko. Azken finean, ezinbestekoa da ikertzaile gisa dugun zeregin sozialaz jabetzea. Diziplinen arteko mugak lausotu egin behar dira, eta antolamendu kolektiborako guneak aurkitu, ikerketa-prozesua beste modu batera bideratzeko eta, horrela, erronka ekosozialei erantzun ahal izateko.

Krisiari eta beharrezko trantsizio ekosozialari aurre egiteko, funtsezkoa da ikuspegi zabal, holista, egituratu eta diziplinartekoa izatea, gai sozioekonomiko, politiko, kultural eta ingurumenekoak lotuko dituen. Eta foku anitzeko planteamendu horiek garatzeko, pentsamendu kritikoaren etengabeko jardunean oinarritutako diziplinarteko ikerketa-taldeak behar dira. Era berean, beharrezkoa da ulertzea eta ulertaraztea objektibotasuna sozialki eraikitako zerbait dela, eta, halere, horrek ez gaituela nahitaez eramaten nolabaiteko sasieszeptizismo batera.

Azkenik, kontuan hartzekoa da, zentzu zabalean, irudimenak, narratibek eta fikzioek zientziaren aurrerapenak gizarteari ezagutarazteko eta gizartearekin horietaz hitz egiteko duten zeregina. Unibertso artistikoaren zeregina garatu behar da, trantsizio ekosozialetarako ikuspegi alternatiboak eta aukera berriak kognitiboki eta emozionalki irekitzeko.

## 2.3. Unibertsitatearen zeregin soziala trantsizio ekosozialetan

### **KRISI EKOSozIALAREN AURREAN, ZER UNIBERTSITATE BEHAR DUGU ZER GIZARTERENTZAT?**

#### **Unibertsitatearen eta gizarte-erakundearen arteko lankidetzak posibleak**

Gai horri buruzko hausnarketa kolektibotik ondorioak ateratzeko asmoz, elkarriketa-jardunaldi bat egin zen Madrilgo hainbat gizarte-erakunderekin, unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanean sakontzeko helburuz. Horretarako, Munduko kafea izeneko gizarte-berrikuntzako metodologia erabili zen: pertsona-talde batek elkarren artean hitz egiten du, gai garrantzitsuei buruzko galdera jakin batzuk abiapuntu hartuta, ideia, akordio eta ekintza-bide sortzaile eta berritzaileak asmatzeko, giro atsegina eta lagunkoia. Pertsonak (kafe-)mahai batetik bestera ibiltzen dira, eta mahai bakoitzean gai jakin batzuk planteatzen dira. Horrek aukera ematen du jende askorekin hausnarketa konplexuak partekatze, ondorio garrantzitsuak ateratzeko eta prozesuan intelektualki eta emozionalki aberasteko, nahiz eta talde ugariak izan.

Hau izan zen esparru-galdera: «Zer ekarpen egiten dio unibertsitateak gizarteari benetan?». Ondorio orokorra zera izan zen: unibertsitateak zientzia eta ezagutza ekartzen du, baita ikasleentzat zein gizarteko gainerakoentzat baliagarriak izan daitezkeen esperientziak ere. Halere, litekeena da ezagutza-ekoizpenak joera ideologiko jakin batzuk dituzten interes zehatzei erantzutea. Gainera, batzuetan, osasungarria ez den lehia-ingurune batean gauzatzen da hori, eta zaildu egiten du ezagutza gizartera transferitzea.

Horrez gain, unibertsitateak (publikoak) herri xehearentzako goranzko gizarte-igogailu gisa duen zeregina nabarmendu zen.

Egiturazko gabezien atalean, ordea, unibertsitatearen akatsa da gizartearekin distantziak sortzea. Distantzia horiek gaindiezinak dira batzuetan; areago, gizarte-erakundeetatik datozen eskaerakiko gorreriaz jokatzeko du unibertsitateak. Azpimarratzekoa da gizartearen eta unibertsitatearen arteko elkarriketarako bide formal eta iraunkorrik ez dagoela, eta

kontaktu zuzen eta informalaren sareak direla gizartetik unibertsitate-dinamiketara modu irregularrean sartzeko era bakarra.

Halaber, unibertsitateak, erreproduzio sozialeko mekanismo gisa, berdintasunaren eta balio demokratikoen aurkako ereduak ere errepikatu ditu (patriarkatua edo kolonialismoa, kasu) aktiboki zein pasiboki.

Unibertsitateak gizarteari egin beharko liokeen ekarpenari dagokionez, unibertsitateak, gizarteko beste eragile batzuekin batera, aldaketa eta trantsizio ekosozialen prozesu eragileetan parte hartzeko nahia adierazi zen jardunaldian. Gizartearekiko elkarriketaren ildo beretik, gizarteak detektatutako beharrei aplikatutako ezagutza espezializatua eskaintzeko beharra planteatu zen.

Ikuspegi metodologikotik, alde batetik, ikerketa militantea unibertsitatearen logikan sartzeari eskatu zen, eta, bestetik, unibertsitatearen eta gizartearen arteko etengabeko elkarriketa-bideak sortzea, baterako lanaren harmonia eta erabilgarritasuna hobetzeko.

Azkenik, unibertsitatearen eta gizarte-erakundeen arteko lankidetzaren aukeren inguruan, jakintzaren koprodukzioa, ikerketa militantea, irakaskuntza partekatua eta irakaskuntzaren berrikuntza nabarmendu ziren, bai eta unibertsitatean gizarte-mugimenduen hainbat ekitaldi, foro eta/edo topagune egitea ere.

Halaber, trantsizio ekosozialen testuinguruan unibertsitate-unibertsitatearen eta gizarte-erakundeen arteko harreman-kasu arrakastatsuen azterketa eta karakterizazioa egitea komeni dela ikusten da, egoera eta baldintza desberdinetan erreplika daitezkeen metodoak sortzeko.

Unibertsitatearen (UCM 2030 Behatokiaren bidez) eta gizarte-erakundeen arteko harremana sendotzeko logikari dagokionez, hainbat komunikazio-, elkarriketa- eta partaidetza-bide gaitu dira, interes komuneko ekimenetan elkarlanean aritzeko eta trantsizio ekosozialei lagunduko dieten tresna metodologikoak garatzen jarraitzeko. Horrek barne hartzen du UCM 2030 Behatokiaren ikerketa-lanean parte hartzea, baita haren erabakiak hartzeko prozesuetan ere.

### 3. Etorkizunerako konpromisoa

UCM 2030 Behatokiaren sorrerako helburua hauxe da: Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak 2024-2030 aldian 2030 Agendako edukien aplikazioan egindako lana ebaluatzea. Era berean, bitarteko gisa sortu da, 2030etik aurrera planetaren gizarte- eta ingurumen-mugekin bateragarria den konpromiso ekosoziala lortzeko plan bat garatzen lagunduko duten ideiak, ekimenak, tresnak eta beste edozein elementu ekar ditzakeena.

Ildo horretan, UCM 2030 Behatokiaren 2025eko programazioak lan-ildo hauek ditu:

- A. Unibertsitate arteko sare bat eratzea, beste unibertsitate batzuen eta UCM 2030 Behatokiaren arteko erakunde-zein ikerketa-mailako lankidetzak akordioetan oinarritua.**
- B. Tokiko komunitate eta gizarte-erakundeekiko elkarriketa sendotzea, unibertsitateak trantsizio ekosozialari begira duen eginkizun soziala garatzeko.**
- C. UCM 2030 Behatokiaren adierazle-sistemaren metodologia garatu, eguneratu eta hedatzea.**
- D. 18. GJH berria, jakiteko eta egiazko informazioa jasotzeko eskubideari buruzkoa, sortzeko beharra sustatzea.**
- E. 2030aren ondorengo Agendarako proiektzio-plana.**
- F. Unibertsitateetako esperientzia eraldatzeko hezkuntza-tresna berria egitea.**
- G. «Zer unibertsitate, zer agenda ekosozialetarako eta zer gizarterentzat» gaiari buruzko ikerketa, eztabaidak eta prestakuntza.**

## ESKERRAK EMATEA

Ikertzaile-taldeak eskerrak eman nahi dizkio Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioari, Kongresuari zuzendutako komunikazio honen oinarri den ikerketa garatzeko dirulaguntza emateagatik.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu adierazleen datuak biltzen parte hartu duten guztiei; izan ere, datu horiek gabe ezinezkoa zatekeen hemen aurkeztutako emaitzak lortzea.

## ERREFERENTZIAK

ALCARAZ, A., ALONSO, P. (2019). La contribución de las Universidades a la Agenda 2030. Valentzia: Valentziako Unibertsitatea.

BARNETT, R. (2018). The Ecological University. A Feasible Utopia. Londres eta New York: Routledge.

CAÑIBANO, C., PAVONE, V. (2022). «Desafío A. Ciencia, innovación y conocimiento para modelos sostenibles de desarrollo», in MOYANO, E., GARCÍA AZCÁRATE, T. (edit.), Nuevas bases para una sociedad global sostenible (1. liburukia), in MARCO, J., VICTORIA MORENO-ARRIBAS, M. (koord.). Desafíos Científicos del CSIC: Rumbo al 2030. Madril: Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusia (CSIC), 2022. [http://libros.csic.es/product\\_info.php?products\\_id=1626](http://libros.csic.es/product_info.php?products_id=1626).

CRUE (2021). Universidad 2030. Propuesta para el debate. [https://www.crue.org/wp-content/uploads/2021/11/CRUE\\_UNIVERSIDAD2030\\_VERSION-DIGITAL.pdf](https://www.crue.org/wp-content/uploads/2021/11/CRUE_UNIVERSIDAD2030_VERSION-DIGITAL.pdf) (2022ko ekaina).

GÓMEZ, M.LI., SOLANA, J. (2016). Documento de Partida para el proceso para la modificación de la Estrategia de Cooperación Universitaria al Desarrollo. CRUE eta CUD behatokia.

ELGA, JRC (2008). Handbook on Constructing Composite Indicators. [https://www.oecd-ilibrary.org/economics/handbook-on-constructing-composite-indicators-methodology-and-user-guide\\_9789264043466-en](https://www.oecd-ilibrary.org/economics/handbook-on-constructing-composite-indicators-methodology-and-user-guide_9789264043466-en).

SDSN, Sustainable Development Solutions Network Australia/Pacific (2017). Cómo empezar con los ODS en las Universidades. Una guía para las Universidades, los centros de educación superior y el sector académico. Melbourne. Gaztelaniazko argitalpena hemen eskuragarri:<https://reds-sdsn.es/wp-content/uploads/2017/02/Guia-ODS-Universidades-1800301-WEB.pdf> (2022ko ekaina).

Valentziako Unibertsitate Politeknikoa (2020). Los ODS en las Universidades españolas: una propuesta de la UPV para medir su grado de cumplimiento. Valentzia: UPV.

## ERANSKINA

### CAMPUSA

#### AGL-A

---

Berdintasun-planei edo aniztasun-atalaren ekintzei esleitutako finantzaketaren eta baliabideen gardentasuna.

Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako arkitektura-oztopoak kentzea.

---

Justizia sozialarekin zerikusia duten neurrien/ekintzen eragina.

---

Osasun mentalari buruzko ikerketen eta arazo horiei emandako erantzunen inguruko gardentasuna.

---

Fakultateetako diziplinak ikusaraztea.

---

Campusetako bizikidetzarako estrategien ebaluazioa, unibertsitate solidarioa eta indarkeria-mota guztietatik askea lortzeko.

---

Ikasketak lan-jarduerarekin eta bestelako erantzukizunekin uztartzeko dauden erraztasunak edo eragozpenak egiaztatzea.

---

Ematen diren laguntzak aztertzea eta emateko irizpideak diskriminatzaileak ez direla egiaztatzea.

---

Ikuspegi interseksionala aintzat hartzea.

---

Berdintasun Planari eta aniztasun-atalaren ekintzei esleitutako finantzaketaren eta baliabideen gardentasuna.

---

## BGL-A

---

Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria argi eta garbi sustatzea, ahal dela autokontsumoaren bidez.

---

Demokrazia energetikoa sustatzea, jatorri berriztagarria bermatua duen horniduraren bidez, campusetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak edo jabetza publiko-komunitarioko beste eskema batzuk erabiliz.

---

Energia aurrezteko eta energia-efizientziako politikak ezartzea unibertsitatearen jardueretan, baita kontratazioan ere.

---

Eskariaren malgutasunean oinarritutako energia-kudeaketarako ereduen ezarpen-maila.

---

Oinezkoen, bizikletaren eta garraio publiko jasangarriaren erabilera lehenesten duten azpiegiturak eta garraiobideak sustatzea.

---

UCMko campusetako aztarna ekologikoa eta gainerako kanpo-efektuak (berotegi-efektuko gasak, esaterako) murrizteko planak.

---

UCMko langileen soldatak igotzea.

---

Ikasleentzako beka-kopurua handitzea.

---

Ikasleen lan-praktikak: kredituak, ordainsariak eta egin beharreko jardueretik eta hartutako erantzukizunetik egokitzapena.

---

Langile lan-kontratudunen eta funtzionarioen (IRIen, TEKAZELen) kategorietako ordainsari-mailak, lanpostuaren ezaugarriei dagokienez.

---

Langile lan-kontratudunen eta funtzionarioen kategorietako ordainsarien arteko aldeak, (soldata-tarteak), eta horiek ikuspegi intersektzionaletik aztertzea.

---

Sustapen-prozesuak eta langileek beren gain hartutako jarduera guztiak aztertzea.

---

---

Ikasleen lan-praktikak: ezaugarriak eta praktikak edo prestakuntza-kontratuak egiten diren erakundearekiko kontratu-mota.

---

Ikasleen lan-praktikak: lana prestakuntza-planetara zenbateraino egokitzen den.

---

Lan-harremanaren behin-behinekotasuna diru-sarreraren segurtasunaren ikuspegitik.

---

Unibertsitateko langile lan-kontratudunen eta funtzionarioen kontratu-baldintzak, bai eta azpikontrataturako langileenak ere.

---

Azpikontratetako lan-baldintzak, eta unibertsitateak azpikontratazioan duen zeregina eta ezartzen dituen baldintzak.

---

Ikertzaile-profila irakasleenera egokitzea.

---

IRlen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZELen) profiletan lan egiteko azpiegitura eta ekipamendu egokiak.

---

Genero-desberdinkeriak eta -arrakalak lan-kategorien arabera; emakumezko IRlentzako lurzoru itsaskorra.

---

Unibertsitate-komunitatearen negoziazio kolektiboaren estaldura-maila.

---

IRlentzako eta AZELentzako prestakuntza-politikak, unibertsitateko lana errazteko eta hobetzeko.

---

Osasun mentaleko arazoak.

---

Unibertsitateko lanari lotutako istripu-arriskuen eta osasunerako elementu kaltegarrien eragina.

---

Askatasun sindikalaren maila eta jarduera sindikala burutzeko baldintzak unibertsitatean.

---

Eraikinak eta instalazioak mantentzeko, konpontzeko, birmoldatzeko eta/edo eraikuntza berriak egiteko kontratuak.

---

---

Inguruko hornitzaileei erostea.

---

## CGL-A

---

Elikagai osasungarriak eta ingurumen- eta gizarte-justiziako irizpideak betetzen dituztenak eskura izatea: ekologikoak, agroekologikoak, hurbilekoak, ingurumen-araudiaren (basozaintzaren edo arrantza jasangarriaren) arabera ekoitziak, aztarna hidrikoa, tokiko ekonomia eta bidezko merkataritza.

---

---

Edateko ur-iturriak erraz, doan eta maiz eskura izatea.

---

---

Hainbat iturrik eragindako kutsadura-kasuak.

---

---

Berdegune eta atsedengune erabilgarrien kalitatea.

---

---

Lan-, istripu- eta osasun-arriskuak prebenitzeko neurriak unibertsitate-komunitatearentzat.

---

---

Unibertsitatez kanpoko komunitatearekiko harremanari eskainitako eremua.

---

---

Prestakuntzak ingurune osasungarrietan duen eragina.

---

---

Kirol-azpiegituren edukiera.

---

## DGL-A

---

Askotariko ondasunak konpontzeko sistemak egotea.

---

---

Material informatikoa erosteko gizarte- eta ingurumen-irizpideak.

---

---

Campusetan espezie autoktonoak egotea.

---

---

Campusetan bildutako hondakinetatik zati organikoaren kantitatea (edo ehunekoa).

---

---

Campusetako jardueraren eragina hirugarren herrialdeetan.

Lurreko ekosistemen elkarrekiko zaintzari lotutako programak, justizia ekologiko globaleko estandarrak kontuan hartuta.

Karbono-aztarna murrizteko politikak.

UCMn plastikoen erabilera ezabatzeko politika aktiboak.

Biodibertsitatea sustatzea UCMko unibertsitate-eraikinen barruan.

---

## EGL-A

---

Unibertsitate-komunitatea osatzen duten taldeek (ikasleek, AZELEk eta IRlek) bidezko ordezkaritza izatea unibertsitateko organo arautzaileetan eta gobernukoetan.

---

Unibertsitateak ematen duen informazioaren gardentasuna, ekonomia- eta aurrekontu-informazioa barne.

---

Unibertsitatearen dokumentu arauemaile eta instituzionaletan printzipio etikoekiko —bakea, justizia, berdintasuna, gardentasuna eta gobernu ona— berariazko konpromisoa txertatzea.

---

Trukean hartutako ikasleak eta beste ikastetxe batzuetan mugikortasun-egoeran daudenak.

---

Garapenerako lankidetza-proiektuak.

---

Berrikuntza demokratikoko ekimenak (ordezkaritza hedatzea, kanal berriak, tresna berriak).

---

Erosketa publiko jasangarrirako jarraibideak (gerentzia orokorreko kontratazio-bulegoa).

---

Unibertsitateko boluntarioen poltsan dauden ikasleen egoera.

---

---

Unibertsitatearen kontratazio- eta erosketa-politiken koherentzia-maila.

---

## IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA

### AGL-A

---

Irakasleak aniztasunera egokitzen direla egiaztatzea eta horren jarraipena.

---

Unibertsitatean justizia soziala hobetzeko jarduerak abian jartzeko oztopoen gaineko ardura.

---

Ikaskuntza-komunitateen, ikaskuntza kolektiboen eta zainketen unibertsitatearen jarraipena.

---

Askotariko ikuspegiak biltzen dituzten zeharkako ardatzak.

---

Trantsizio ekosozialetara bideratutako irakaskuntzaren eta ikerketaren integrazio-maila.

---

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen proportzioa.

---

Zeharkako irakaskuntza- eta ikerketa-ekimenen (ikasketa-proiektu, -talde eta -komunitateen) zenbaketa.

---

Koirakaskuntzari, koprodukzioari eta kodiseinuari lotutako ezagutza eta ikerketa militanteko ekimenen zenbaketa.

---

Irakaskuntzaren eremuan diskurtso kolonial, matxista, arrazista, kapazitista, LGTBIQ+fobiko eta antzekoak amaitzeko berme esplizitua.

---

## BGL-A

---

Energia-iturri berriztagarriak eta autokontsumoa aktiboki sustatzea, erregai fosilen eta energia nuklearraren alorretako enpresen aurrean.

---

Hornidura berriztagarri eta kooperatiboa aktiboki sustatzea, hain efizienteak eta demokratikoak ez diren jardunbideen aurrean.

---

Energia-aurrezpena eta -efizientzia aktiboki sustatzea, jasangarritasunerako eta justizia eta demokrazia energetikorako nahitaezko tresna gisa.

---

Jabetza publiko-komunitarioko eskemak sustatzea, askatasun efektiborako tresna gisa, biztanle guztientzako energia eskuratzearen (eta kontrolatzearen) bidez.

---

Oinezkoen, bizikletaren eta garraio publiko jasangarriaren erabilera lehenesten duten azpiegiturak eta garraibideak sustatzea.

---

Aztarna ekologikoa eta beste kanpo-efektu batzuk kontabilizatzeko sistemak garatzea, unibertsitatearen errealitatera egokituta.

---

BPGd-aren ordezkari giza garapenaren indizearen (GGIaren) ezarpen-maila, aurrerapena eta horri lotutako ikerketa-taldeak neurtzeko.

---

Itzulkin sozialari eta antzekoei buruzko irakasgaiak, garapenaren neurri gisa.

---

Jasangarritasunari eta/edo GJHei lotutako titulazioetako ikasleak.

---

Jasangarritasunaren eta/edo GJHen arloko gizarte-transferentziako jarduketak (bi noranzkoetan).

---

Atal, departamentu eta fakultateen aurrekontu-zuzkidurak, eta horien egokitasuna irakaskuntzari eta ikerkuntzari lotutako ibilbide profesionalen irizpideak betetzeko eskatzen diren jarduerak finantzatzeko.

---

Irakaskuntza-programetan, IRIen prestakuntzan, ikerketa-proiektuetan, master-amaierako lanen (MALen) edo tesien sarietan eta abarretan kontziliazioa

---

---

ahalbidetu eta erantzunkidetasuna sustatzen duten kontratu-baldintzak eta lan-ezaugarri duinak ezartzea.

---

GJH horri —lan duina— buruzko ikerketa sustatzeko jarduerak eta pizgarriak, eta lan-eskubideen arloan GJH horri lotutako helburuen/helmugen irismena sustatzekoak.

---

Irakasle-taldeei curriculumak egokitzen laguntzeko batzorde edo talde bat egotea.

---

Hezkuntza-berrikuntza edo jardunbide egokiak baloratzeko unibertsitate barruko aintzatespen-pizgarriak, justizia sozialaren, giza eskubideen eta ikuspegi feminista zein intersektionalaren nahikotasuna, arrazionaltasuna eta jasangarritasuna aintzat hartuta.

---

Gai horien txertatze- eta zeharkakotasun-maila unibertsitate-irakaskuntzan.

---

Gai horiei buruzko GrALen eta MALen kopurua.

---

Gai horiei buruzko ikerketen ekoizpena.

---

## CGL-A

---

Unibertsitateko elikadura ingurumenaren, gizartearen eta nutrizioaren ikuspegitik hobetzeko ikerketa- eta garapen-proiektuak.

---

Irakaskuntza-ordutegiak elikadura on batekin bateraezinak diren kasuak.

---

Irakaskuntzako talde-lanaren eta lan gizartearekiko onuragarriaren jarraipena.

---

Irakaskuntzako giden eta azaldutako ikuspegiaren arteko koherentzia-maila.

---

Osasun komunitarioko ikuspegiak dagozkien ibilbide akademikoetan txertatzea.

---

Irizpide ekosozialak dituzten elikadura-sistemei eta elikagaiei lotutako ikerketak.

---

Agroekologiari, goserik ezari eta elikadura osasungarri, nutritibo eta nahikoa izateko eskubideari, ur garbia izateko eskubideari eta osasun- eta ongizate-eskubideari lotutako oinarritzko/nahitaezko bibliografia duten masterretako irakasgaiak.

---

## DGL-A

---

Teknologia konpontzeko komenigarritasunari eta teknikei lotutako ikerketa- eta garapen-proiektuak.

---

Ekonomia zirkularraren komenigarritasunari eta ontziak itzultzeko teknikei lotutako ikerketa- eta garapen-proiektuak.

---

Ingurumenari eta/edo klima-aldaketaren ondorioak arintzeari buruzko eskaintza akademikoa/prestakuntza-eskaintza (adibidez, hondamendi naturalen aurreko plangintza) edo gai horien zeharkakotasuna gradu-, master- eta doktorego-programa guztietan edo batzuetan.

---

Klima-aldaketaren aurka borrokatzera eta haren eraginak arintzera bideratutako I+G+b-ko eta transferentziako proiektuak/programak, master-irakasgaiak eta MALak.

---

Lurreko ekosistemak babestera bideratutako I+G+b-ko eta transferentziako proiektuak/programak, master-irakasgaiak eta MALak.

---

## EGL-A

---

Hiri eta komunitate jasangarrietara bideratutako I+G+b-ko eta transferentziako proiektuak/programak.

---

Ikaskuntza-helburuetan eta/edo eskuratu beharreko gaitasunetan bakea, justizia eta erakunde indartsuak sustatzen dituzten master-irakasgaiak.

---

Herritarren zientzia indartzea, berrikuntza instituzionalerako (irakaskuntzarako, ikerkuntzarako, transferentziarako) estrategia gisa.

---

Ikaskuntza-helburuetan eta/edo eskuratu beharreko gaitasunetan GJHak betetzeko aliantzak sustatzen dituzten master-irakasgaiak.

---

---

Katedra-askatasuna babesteko politika esplizituen jarraipena.

---

# DISKURTSO ETA PRAKTIKA INSTITUZIONALAK

## AGL-A

---

Unibertsitatearen gizarte-erantzukizuneko politika ezartzea.

---

Garapen Jasangarrirako Helburuak politika estrategikoetan txertatzea.

---

Diziplina anitzeko taldeen jarraipena, 2030 Agenda ezartzeko ekintzak koordinatzeko eta proposatzeko.

---

Garapen Jasangarriko Helburuei buruzko estrategia, dimentsio soziologikoa kontuan hartuko duena.

---

Ahuleziaren bat duten ikasleentzako matrikulazio-kuota bat masterretan (espedienteetako kalifikazioa aintzat hartu gabe), berrelitizazioa saihesteko.

---

Indarkerien aurkako protokoloak betetzearen jakinarazpenaren gardentasuna.

---

Eskubide-urraketen parte bidezko salaketen jarraipena.

---

Unibertsitateko partaidetza-gunearen inguruan kontuak ematea.

---

Unibertsitate-sistamarako sarbidea hobetzeko eta unibertsitate-bizitzari bete-betean probetxua ateratzeko neurriak proposatzea.

---

Aniztasunaren inguruan garatutako neurrien eragina.

---

Sindikatuetan eta/edo Unibertsitateko erabaki-organoetan ordezkaritza duten langile azpikontratatuak.

---

Unibertsitateko datuak generoaren arabera bereizita aurkeztea.

---

## BGL-A

---

Energia-iturri berriztagarriak eta autokontsumoa aktiboki sustatzea, erregai fosilen eta energia nuklearraren aurrean, praktika eta komunikazio instituzional guztietan, baita enpresekiko lankidetzaren eremuan ere.

---

Hornidura berriztagarri eta kooperatiboa aktiboki sustatzea, hain efizienteak eta demokratikoak ez diren jardunbideen aurrean, praktika eta komunikazio instituzional guztietan, baita enpresekiko lankidetzaren eremuan ere.

---

Energia-aurrezpena eta -efizientzia aktiboki sustatzea, jasangarritasunerako eta justizia eta demokrazia energetikorako nahitaezko tresna gisa, praktika eta komunikazio instituzional guztietan, baita enpresekiko lankidetzaren eremuan ere.

---

Jabetza publiko-komunitarioko eskemak sustatzea praktika eta komunikazio instituzional guztietan, baita enpresekiko lankidetzaren eremuan ere.

---

Praktika eta komunikazio instituzionalei lotutako energia-ustiapena, -metaketa eta/edo -espoliazioa zigortzea, baita enpresekiko lankidetzaren eremuan ere.

---

Oinezkoen, bizikletaren eta garraio publiko jasangarriaren erabilera lehenesten duten azpiegiturak eta garraiobideak sustatzea praktika eta komunikazio instituzional guztietan, baita enpresekiko lankidetzaren eremuan ere.

---

Aztarna ekologikoa murrizteko hitzarmen instituzionalak, eta haien jardueran aztarna ekologikoaren balio jakin batzuk gaituzten eragileak zigortzeko sistemak, baita unibertsitate-jardueraren gainerako kanpo-efektuak zigortzekoak ere.

---

Hazkundearen (BPGd-aren) ordezkari diskurtsoak.

---

UCMren ekintzen itzulkin soziala neurtzea.

---

Jasangarritasunera eta/edo GJHetara bideratutako kargu instituzionalak eta aurrekontu-partidak.

---

---

Barneko eta azpikontrataturiko langileak ordaintzeko baliabide ekonomikoak, eta haiek unibertsitate-jardueraren beharretara egokitzen diren baloratzea.

Deskonexio-eskubideari lotutako neurriak.

---

Laneko arriskuak prebenitzeko politika.

---

Erosketa- eta kontratazio-pleguetan jasotako baldintzak bermatuko dituen eragile-sarea.

---

Azpiegiturak eraiki, egokitu eta mantentzearen gobernantza demokratikoa errazteko mekanismo eraginkorrak.

---

Nahikotasun-, arrazionaltasun- eta jasangarritasun-irizpide horiek jaso eta lehenesten dituzten azpiegituren inbertsio-, prestakuntza- eta mantentze-politikak.

---

Unibertsitatean kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzeko neurrien balorazioa.

---

Unibertsitatearen finantzaketa publikoaren —Estatua, autonomia erkidegoa...— eta pribatuaren ibilbidea ebaluatzea, eta erakundearen pertsonal-gastuekin eta jardueraren gastu arruntekin alderatzea.

---

Unibertsitateak tokian bertan, Estatuan, eskualdean edo nazioartean parte hartzea politika instituzionalen eztabaidan eta/edo lanketan, gai hauen inguruan: energiaren ekoizpen, hornidura eta kudeaketa jasangarria; hazkunde ekonomiko jasangarria eta enplegu duin eta kalitatezkoa; azpiegitura jasangarrien sustapena, eta ekoizpen eta kontsumo etiko, jasangarri eta arduratsua.

---

Unibertsitateak bere ingurunean parte hartzeko ekimenak, herritarrentzako energiaren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria hobetzeko eta ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarri, etiko eta arduratsuak sustatzeko.

---

Helburu horiek sustatzeko finantzaketaren bilakaera.

---

REASeko kide izatea.

---

## CGL-A

---

Kafetegi, jantoki, kantina, makina eta unibertsitate-egoitzetako elikadura-politikak kontrolatzeko mekanismoak eta pertsonak.

---

Janari ekologikoa eta tokikoa ekitaldi ofizialetan.

---

Lankidetzak-kontratuak proiektu agroekologikoekin.

---

Nutrizioaren aldetik egokiak diren eta irizpide ekosozialak betetzen dituzten elikagaiak eskuratzeko unibertsitate-politikak (IRI, TEKAZEL, ikasle eta abarrentzako programak eta hobariak).

---

Elikadurari eta osasunari lotuta unibertsitatearen eremuko eta unibertsitate-komunitatearen partaidetzako ekintzen jarraipena, proposatutako ikuspegietatik.

---

Jarduera fisiko (lehiakorra eta ez-lehiakorra) sustatzeko politikak.

---

Era guztietako kutsadurari buruzko politikak (diagnostikoa, jarraipena eta hobekuntza), unibertsitate-komunitatearen eskariekin eta araudiarekin bat datozenak.

---

Unibertsitateak tokian bertan, Estatuan, eskualdean edo nazioartean parte hartzea osasunari eta ongizateari buruzko eztabaida eta/edo politika instituzionaletan.

---

## DGL-A

---

Unibertsitatearen barne-erabakietan jasotako hegazkin-bidaiei finantzaketa mugatzearen jarraipena.

---

Sustatutako figura juridiko naturalen jarraipena (adibidez, Mar Menor).

---

---

Unibertsitateak beste unibertsitate batzuekin, sektore pribatuarekin, gizarte zibileko erakundeekin, GKE-ekin eta abarrekin dituen aliantzen jarraipena. Aliantzok helburu hauek izan behar dituzte: klima-aldaketaaren aurka borrokatzea eta haren eragina arintzea, eta/edo lurreko ekosistemak babestea eta baliabideen kudeaketa jasangarria egitea.

---

## EGL-A

---

Unibertsitate-komunitateak erabakiak hartzen parte hartzea.

---

Unibertsitate-jasangarritasunerako eta hiri/mundu-jasangarritasunerako motibatzailea, erraztailea eta aktibatzailea den komunikazio instituzionaleko berrien jarraipena.

---

2030 Agendako edukiekin lotura duten kanpo-komunikazioko jardueren —sare sozialak, prentsa-oharrak, berriak eta abar— jarraipena.

---

Unibertsitate-komunitatearekin (ikasle-elkarte, sindikatu eta irakasle-sareekin) unibertsitate-jasangarritasunaren inguruan parte hartzeko ekimenen jarraipena.

---

Herritarren zientzia berrikuntza instituzionalaren (irakaskuntzaren, ikerkuntzaren, transferentziaren) estrategia izateko gidalerroak.

---

Unibertsitate/mundu-jasangarritasunaren aldeko aliantzak, unibertsitatea partaide dutenak.

---

Lankidetzaren publiko-pribatuaren jarraipena.

---

Zerbitzu-ikuskaritzaren funtzionamenduarekiko asebetetze-maila.

---

Politikan eta/edo demokrazian parte hartzeko jarduerak askatasunez betetzeko oztopo edo traben jarraipena (arauei eta praktika instituzionalei dagokienez).

---

---

Unibertsitateko tresna digitaletara eta datu-baseetara sartzeko eta horiek erabiltzeko erraztasun-maila.

---

Unibertsitatearen erosketa- eta kontratazio-prozesuetan baldintza ekosozialak betetzen direla kontrolatzeko mekanismoak (eta zigorrak).

---